

---

# TOKI ADMINISTRAZIOARI BURUZKO GIDALIBURUA TOKI UDALBATZA BERRIENTZAT

---



**2023KO EKAINA**

# AURKIBIDEA

---

<b>NAFARROAKO TOKI ENTITATEAK.....</b>	<b>3</b>
<b>UDALERRIA .....</b>	<b>4</b>
UDALERRIAREN KONTZEPTUA.....	4
UDALERRIAREN OSAGIAK.....	4
UDALERRIAREN ESKUMENAK.....	7
UDALAREN ANTOLAMENDUA .....	12
UDALAREN FUNTZIONAMENDUA .....	22
UDALERRIA: HARREMANAK .....	29
UDALEKO LANGILEAK .....	31
<b>BESTE TOKI ENTITATE BATZUK.....</b>	<b>36</b>
KONTZEJUA.....	36
MANKOMUNITATEAK .....	38
ESKUALDEAK .....	39
<b>TOKI JARDUERAK, ZERBITZUAK ETA OBRAK .....</b>	<b>41</b>
ESKU-HARTZEAREN JARDUERA.....	41
ZERBITZU PUBLIKOAK .....	44
SUSTAPENAREN JARDUERA .....	47
<b>TOKI ENTITATEEN ONDASUNAK .....</b>	<b>48</b>
SAILKAPENA .....	48
TOKI ENTITATEEN ESKUMENAK ERAKUNDE HORIEN ONDASUNEKIKO .....	48
JABARI PUBLIKOKO ONDASUNAK .....	49
HERRI-LURRETAKO ONDASUNAK .....	50
ONDARE ONDASUNAK .....	50
<b>TOKI KONTRATAZIOA .....</b>	<b>51</b>
KONTRATU MOTAK .....	51
KONTRATATZEKO ESKUMENA .....	52
KONTRATUA PRESTATZEARI ETA ESLEITZEARI BURUZKO ARAUAK .....	53
ESLEITZEKO PROZEDURAK.....	53
ESLEITZEKO IRIZPIDEAK .....	55
LIZITAZIOEN PUBLIZITATEA .....	56
TOKI ENTITATEEN AHALMENAK KONTRATAZIO PUBLIKOAN .....	56
KONTRATUA IRAUNGITZEA .....	57
ERREKLAMAZIO BEREZIAK KONTRATAZIO PUBLIKOAN.....	57
<b>TOKI OGASUNAK.....</b>	<b>59</b>
APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA .....	59
TOKI ENTITATEEN EKONOMIA- ETA AURREKONTU- KUDEAKETA .....	60
TOKI ENTITATEEN BALIABIDEAK .....	61
AURREKONTUAREN ETA KONTABILITATEAREN KUDEAKETA .....	77



# NAFARROAKO TOKI ENTITATEAK

---

Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 3. artikulua ezartzen du ezen, udalerriaz gain, hura baita Nafarroako Foru Komunitatearen oinarritzko toki entitatea, honako hauek ere Nafarroako toki entitatetzat jotzen direla:

- a) Kontzejuak
- b) Elkarte tradizionalak.
- c) Mankomunitateak.
- d) Planifikazio Orokorreko Mankomunitateak.
- e) Eskualdeak.

Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko Otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearekin bat, zerbitzuen batasunek eta barrutiek galdu dute toki entitate izaera, eta Eskualdeek eta Plangintza Orokorreko Mankomunitateek, berriz, eskuratu.

Eskualdeei dagokienez, adierazitako Foru Legeak 12 sortzea aurreikusia du eta horien barruan egungo mankomunitateak eta zerbitzuen batasunak barne hartzea. Hala ere, orain arte ez da Eskualderik sortu.

# UDALERRIA

---

## Udalerriaren kontzeptua

Estatuaren lurralde-antolaketaren oinarritzko toki entitatea da. Afera publikoetan herritarrek parte hartzeko bide hurbilena da, herritarrek ordezkatzeko dituzte, eta herritarren interesak autonomiaz elkartzen eta kudeatzen ditu.

Bestela esanda:

- Estatuaren lurralde-administratioko hiru mailetakoko bat da. Alegia, benetako administrazioa da, Estatua eta autonomia-erkidegoa diren bezalaxe.
- Herritarrengandik hurbilen dagoen lurralde-administratioa da.
- Hurbiltasun horren ondorioz, herritarrek afera publikoetan parte hartzeko duten lehen mekanismoa da. Halaber, herritarren interesak gehien eta hobekien betetzen dituen administratioa da, herritarren oinarri-oinarritzko premiak asetzen dituena.
- Autonomiaz egiten da herritar-taldearen kudeaketa edo auto-kudeaketa udalaren antolamenduaren bitartez.

## Udalerriaren osagaiak

Udalerriak hiru osagai hauek ditu:

▪ <i>Lurraldea:</i>	Udalerriaren eremu fisikoa da, non bere eskumenak erabiltzen baititu
▪ <i>Biztanleria:</i>	Gizartea osatzen duten pertsonak dira; udalak haien interesak zaindu eta kudeatzen ditu
▪ <i>Antolamendua:</i>	Udalerriari bere xedeak lortzeko bide ematen dion tresna da. Hau da, udalaren eskumeneren kudeaketa bere gain hartzen duen egitura

### ■ **Lurraldea**

- Udalerriarentzat, lurralde-entitatea den aldetik, lurraldea funtsezko elementua da; hura gabe, ez litzateke udalerrria.
- Hori dela eta, toki entitate baten lurraldean gertatzen diren aldaketek udalerrria desagertzea ekartzen ahal dute udalerrriak lurralde osoa galtzen badu.
- Lurraldea aldatzeko moduak:
  - Udal mugapera lur gehiago gehitzea (eransketa).
  - Udal mugapearen azalera gutxitzea (bereizketa). Bereizketa hori beste udalerrri batzuen azalera handitzeko (eransketa) edo udalerrri berri bat sortzeko izan daiteke.
  - Hainbat entitatek bere lurralde osoak elkartzea (entitateak bat egitea) edo entitate baten udal mugape osoa beste batean edo batzuetan txertatzea.
- Udalerrien txertatzeek eta bat egiteek berekin dakarte toki entitatea, bere horretan, azkentzea; izan ere, txertatutako edo bat egindako entitateak bere lurralde osoa galtzen du.

### ■ **Biztanleria**

- Udalerriko herritarrek osatzen dute.
- Udalerriko biztanleak dira udal erroldan izena emanda daudenak. Herritarrak zer udalerritan duen ohiko bizitokia, horko erroldan eman behar du izena. Udalerrri batean baino gehiagotan bizi denak, zeinetan ematen duen denbora gehien urtean, horretan eman beharko du izena. Erroldan izena eman eta une berean lortzen da herritar izaera.
- Udal errolda, udalerrriaren biztanleen erregistro-euskarria, erregistro administratiboa da. Bertan jasotako datuek frogatzen dute udalerrrian eta bertan adierazitako helbidean bizi dela herritarra. Udalari dagokio udal errolda eratzea, horren mantentze-lanak egitea, berraztertzea eta zaintzea.

## ■ **Antolamendua**

- Udalerriak, bere xedeak betetzeko, antolamendua behar du. Alegia, udalaren eskumenak zenbait organoren esku paratu behar dira.
- Hauek dira udal antolamenduaren ezaugarriak:
  - Ordezkaritza-izaera.
  - Eraketa eta/edo bokazio demokratikoa: udala osatzen dutenak sufragio unibertsalez aukeratuak izan dira, edo herritar guztiak dira udalaren parte, edo erabakietan parte hartzen dute.
  - Autonomia du bere burua antolatzeko eta dagozkion eskumenak betetzeko.
- Udalerriaren gobernu moduak:
  - Udala:
    - 101 biztanle edo gehiago dituzten herriak: alkateak eta zinegotziek osatzen dute udala.
    - 100 biztanletik beherako herriak: alkateak eta 2 zinegotzik osatzen dute, nahiz eta, orain arte, 100 biztanletik beherako herri guztiek bazuten Kontzeju Irekiaren araubide berezia.
  - Kontzeju Irekia:
    - Honako hauek baino ezin dute Kontzeju Irekia izan:
      - a. Tradizioz eta beren borondatez erregimen berezi hori duten udalerriak.
      - b. Kokapen geografikoagatik komenigarria denean.
      - c. Lege baldintzak beteta, araubide horrekin jarraitzea erabakitzen duten 100 biztanletik beherako udalerriak:
        - Zinegotzi hautetsiek erabakita eraketa-bilkuraren ondoren.
        - Herritarren gehiengoak erabakita.

## Udalerriaren eskumenak

### ■ **Kontzeptua eta motak**

- Eskumenaz ari garenean, hura nori esleitzen diogun, horrexek erabakiak hartzeko duen gaitasunaz ari gara. Azken finean, toki administrazioari dagokionez, administrazio batek zenbait jardun egiteko nahiz herritarrei zerbitzu zehatzak emateko duen gaitasuna hartuko dugu eskumentzat.
- Eskumen motak:
  - Berezko eskumenak:
    - Legeak toki entitateari zuzenean esleitzen dizkien horiek.
    - Autonomiaz erabiltzen dira, nork bere eratzukizunpean.
  - Eskumen eskuordetuak:
    - Legeak beste administrazioei esleituta, administrazio horiek toki entitateen esku uzten dituzte denbora baterako.

### ■ **Berezko eskumenak**

- Toki Araubideko Oinarriei buruzko Legeak ez ditu modu itxian zehazten udalerrien eskumenak; aitzitik:
  - Aipatzen du, herrien interesak ukitzeagatik, zer gaitan izanen duten eskumena toki udalbatzek.
  - Aipatzen du zer zerbitzu (gutxieneko zerbitzuak) eman behar duten nahitaez udalerriek.



Zer gaitan esleitzen dizkieten legeek eskumenak udalerriei <sup>1</sup>:

- Hirigintza.
- Hiri ingurumena; parkeak eta lorategiak; hiri hondakin solidoen kudeaketa; hotsaren, argiaren, beroaren eta eguratsaren kutsaduraren kontrako babesa hiri eremuetan.
- Ur hornidura eta hondakin uren hustuketa eta tratamendua; argiteria publikoa; kaleetako garbiketa; eta hondakinen bilketa eta tratamendua.
- Bidaiarien garraio publikoa.
- Kultura, aisialdi jarduerak eta turismoa.
- Irakaskuntzaren programazioan parte hartzea, baita ikastetxeen eraikuntzan eta sostenguan ere.
- Premia sozialaren egoerak ebaluatzea eta txostena egitea eta berehalako arreta ematea gizartetik baztertuta daudenei edo egoteko arriskua dutenei.
- Udaltzaingoa, babes zibila eta suteak prebenitu eta itzaltzea.
- Trafikoa, ibilgailuen aparkalekua eta mugigarritasuna. Hiri garraio kolektiboa.
- Toki interes eta esparruko turismo jardueraren sustapena eta informazioa.
- Feriak, hornidura-azokak, azokak, lonjak eta kalez kaleko salmenta.
- Osasungarritasun publikoa babestea.
- Hilerriak eta hileta jarduerak.
- Kirola sustatzea eta kirol nahiz aisialdi instalazioak.
- Kultura sustatzea eta ekipamendu kulturalak.

---

<sup>1</sup> Toki Araubideko Oinarriei buruzko Legearen 25. artikularen oraingo idazketari dagokio eskumen horien zerrenda. Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Jasangarritasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak aldatu zuen artikulua hori, udal eskumenak mugatu baitzituen alor batzuetan, besteak beste berdintasunean. Dena dela, eskumen hori berriz esleitu zitzaion udalerriei, adierazi bezala esleitu ere.

- Nahitaezko eskolatzea betetzen dela zaintzea eta kasuan kasuko hezkuntza administrazioekin lankidetzan aritzea beharrezko orubeak lortzearren ikastetxe berriak eraikitzeko. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoen eraikinetako kontserbazioa, mantentze-lanak eta zaintza, Udalaren titulartasunekoak direnean.
- Herritarren partaidetza sustatzea udal mugartean informazioaren eta komunikazioen teknologiak erabiltzeko eraginkortasunez eta modu jasangarrian.
- Jarduketak berdintasuna sustatzeko gizonen eta emakumeen artean, baita genero indarkeriaren kontra ere.
- Nafarroako Foru Erkidegoko administrazioak Nafarroako udalerriek beren eskumeneko beste gai batzuetako eskumenak ere eman ahal izango dizkie.
- Eskumenak emateko legeek toki entitateen finantza nahikotasuna bermatuko duten baliabide nahikoak aurreikusi beharko dituzte. Horrek ez du, inolaz ere, administrazio publikoetan gastu handiagoa sortzen ahalko.
- Gutxieneko zerbitzu hauek eman behar dituzte udalerriek nahitaez, biztanleriaren arabera:
  - Udalerri guztiak:
    - Kaleko argiteria.
    - Kaleko garbiketa.
    - Hilerria.
    - Ur hornidura.
    - Hondakinen bilketa <sup>2</sup>.

---

<sup>2</sup> Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Foru Legeak 12.5 artikuluan toki entitateei esleitzen die etxeko hondakinak biltzeko, garraiatzeko eta tratatzeko ardura Autonomia-erkidegoek onetsiko duten esparru juridikoarekin eta planifikaziorako tresnekin bat.

- Estolderia.
- Kaleko zoladura.
- Elikagaien eta edarien kontrola.
- Hiriguneko sarbidea.
- 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak:
  - Parke publikoak.
  - Azoka.
  - Liburutegia.
  - Hiri-hondakinen tratamendua.
- 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak:
  - Babes zibila.
  - Kirol instalazioak.
  - Gizarte zerbitzuak.
  - Suteak prebenitzea eta itzaltzea.
- 50.000 biztanletik gorako udalerriak:
  - Bidaiarien garraio kolektiboa.
  - Ingurumenaren babesa.

Hala ere, 20.000 biztandetik beherako udalerrietan aurreikusia dago Diputazio Probintzialak edo erakunde erkideak zerbitzu zehatz batzuk ematen direla koordinatu beharko duela, Kudeaketa bere gain hartuta edo kudeaketa partekatuko formulak erabilita.

Honakoak dira aipatu zerbitzuak:

- a. Hondakinak bildu eta tratatzea.
- b. Etxeraino edateko ura hornitzea eta hondakin urak ebakatu eta tratatzea.
- c. Kaleko garbiketa.
- d. Hiriguneko sarbidea.

- e. Herriko kaleak zolatzea.
- f. Kaleko argiteria.

Foru Erkidegoan, Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru Legeak zerbitzu horietako batzuk Eskualdeei esleitzen dizkie (uraren goi hornidura eta hondakinen kudeaketa).

- ***Eskumen eskuordetuak***

- Toki entitateetan honakoek eskuordetu ditzakete eskumenak:
  - Estatua.
  - Autonomia Erkidegoa <sup>3</sup>.
  - Beste toki entitate batzuk.

Udal eskumenen azterketa osatzeko dagoeneko aipaturiko Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru Legea hartu behar da kontuan. Dagokion atalean azalduko den bezala, lege horrek aurreikusten du eskualdeak sortzea, eta haien eskumenak arautzen ditu. Udal eskumenei dagokienez, aintzat hartu behar da berezkozat jotzen dizkiela eskualdeei egun udalerriek modu mankomunatuak ematen dituzten zerbitzu batzuk.

Honako hauek dira: lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen zati handi bat, goi hornidura eta hondakinen tratamendua, eta idazkaritzaren eta kontu-hartzaitzaren zerbitzuak atalas batzuetatik beherako udalerrietan, udaletako langileei heltzean ikusiko dugun bezala.

Gainera, aurreikusten da udalerriek eskuordetzen dizkieten beste eskumen batzuk ere erabil ditzaketela eskualdeek.

- Eskuordetutako eskumenen ezaugarriak:
  - Eskuordetza egiten duen entitateak zuzendu ditzake eskuordetutako zerbitzuak, jarraibide orokorrak ezarriz, eta, halaber, kontrol mekanismoak paratu.

---

<sup>3</sup> Toki Araubideko Oinarriei Buruzko Legeak gaien zerrenda bat jasotzen du orain, zeinak Estatuak edo autonomia erkidegoek udalerrien esku utz baititzakete.

- Eskuordetzak ondorioak izateko, toki entitateak onartu behar du, salbu eta legeak ezarrita bada, baina, halako kasuetan, finantzazioa ere ezarri beharko da, eta, horretarako, zuzkidura izan beharko du eskuordetza egiten duen administrazioak bere aurrekontuetan.

## Udalaren antolamendua

### ■ ***Bere burua antolatzeko ahalmena***

Oro har, Estatuak toki araubideari buruz duen oinarritzko legedia dute aplikatzeko Nafarroako udalerriek; eta horretaz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak honako hau dio:

- Estatuak ezarritako xedapenetara makurtzen direla udal antolamendua, udalaren organoen eraketa eta administrazioa.
- Legedi orokorrean xedatutakoa betez erabiliko direla udalerrien gobernu-organoen eta administrazio-organoen eskudantziak, ezertan galarazi gabe foru legean jasotako espezialitateak.

Udalaren antolamenduaz jarraian jaso ditugun laburpenean ez dira bildu hiri handietarako (Nafarroaren kasuan, Iruñea baino ez) aurreikusitako araubidearen berezitasun berekiak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen X. Tituluan aurreikusten dira, 57/2003 Legeak emandako idazketaren arabera).

### ■ ***Beharrezko antolakuntza***

- Udal guztiek organo hauek izanen dituzte:
  - Alkatea.
  - Alkateordeak.
  - Osoko Bilkura.
  - Tokiko Gobernu Batzordea (ezinbestean soilik 5.000 biztanletik gorako udalerrietan).
  - Azterketa, txosten edo segimendu organoak (ezinbestean soilik 5.000 biztanletik gorako udalerrietan).

- Berariaz, urteko kontuak onartzeko prozeduran parte hartzeko, Kontuen Batzorde Berezia egonen da.
- 

- **Alkatea** udalbatzako burua da, eta eginkizun hauek dagozkie:
  - Udal gobernua eta administrazioa zuzentzea (\*).
  - Udala ordezkatzeta.
  - Osoko bilkurak deitzea eta horien buru izatea (hauteskunde eta tokiko araubideari buruzko legeriak espresuki salbuetsitako kasuetan izan ezik), baita Tokiko Gobernu Batzordearen eta beste edozein udal organoren buru ere, eta kalitateko botoaren bitartez berdinketak haustea.
  - Udal zerbitzuak eta obrak zuzendu eta bultzatzea.
  - Bandoak ematea (\*).
  - Ekonomia kudeatzea onartutako aurrekontuaren arabera; bere eskumenen barnean, gastuak erabakitzea; kreditu-eragiketak hitzartzea, betiere, legeak adierazten dituen salbuespenekin, baldin eta aurrekontuetan jasota badaude eta ekitaldi ekonomiko bakoitzeko zenbateko metatuak gainditzen ez badu baliabide arrunten %10, diruzaintzakoak salbu, horiek ere egin ahal izanen baititu eragiketa bizien zenbateko metatuek gainditzen ez badute une bakoitzean aurreko ekitaldiko diru-sarrera likidoen %15; ordainketak agintzea eta kontuak ematea.
  - Langileen arloari dagokionez:
    - Enplegu publikoaren eskaintza onestea.
    - Langileak aukeratzeko eta lanpostuak betetzeko lehiaketarako proben oinarriak onestea.
    - Finkoak eta aldizkakoak ez diren ordainsarien banaketa.
    - Langile guztien buru izatea.

- Langileak izendatzea eta zehapenak ezartzea, funtzionarioak zerbitzutik bereiztea eta langileak kaleratzea barne; bi kasu horietan, erabakiaren berri emanen dio Osoko Bilkurari, horrek egiten duen lehen bileran.
- Udaltzaingoaren buruzagitza betetzea.
- Osoko Bilkurari berriaz ez dagozkion plangintza orokorreko garapen plangintzako tresnak onestea, baita hirigintza kudeaketarako tresnak eta urbanizazio proiektuko tresnak ere (\*).
- Ekintza juridiko eta administratiboak gauzatzea, eta udala babestea bere eskumenekoak diren aferetan, eta, premiazkoa bada, baita Osoko Bilkuraren eskumenekoak diren aferetan ere. Kasu horretan, horren berri emanen dio Osoko Bilkurari horrek berrets dezan (\*).
- Osoko Bilkurari proposatzea kaltegarritasun deklarazioa egitea haren eskumenekoak diren gaiez (\*).
- Beharrezko neurriak hartzea bere kasa katastrofe egoeran, eta horren berri ematea berehala Osoko Bilkurari (\*).
- Zigorrak jartzea bere agintea ez betetzeagatik edo udal ordenantzak hausteagatik, eskumen hori beste organo batzuei emana ez dagoenean izan ezik.
- Kontratazio eta lagapen mota guztiak, baldin eta, batetik, zenbatekoak gainditzen ez badu aurrekontu arrunteko baliabideen %10, edo, kasu guztietan, sei milioi euro (urte batetik gorakoak barne), horien iraupena lau urtetik gorakoa ez denean, eta, bestetik, metatutako zenbatekoak gainditzen ez badu aipatutako portzentajea (lehen ekitaldiko aurrekontuaren baliabide arruntei dagokienez), ezta aipatutako zenbatekoak ere.
- Obra eta zerbitzu proiektuak onestea, horiek kontratatzeko edo esleitzeko eskumena badu, eta aurrekontuan jasota badaude.
- Ondasun higigarriak eta higiezinak erostea, horien zenbatekoak aurrekontuaren baliabide arrunten %5 gainditzen ez badute. Halaber, udalburuari dagokio ondasun horiek besterentzea toki entitatearen xedeetarako beharrezkoak ez direnean, eta besterentzearen

zenbatekoak gainditzen ez duenean aurrekontuaren baliabide arruntan %5.

- Lizentziak ematea, lege sektorialek eginkizun hori berariaz Osoko Bilkurari edo Tokiko Gobernu Batzarrari eman ezean.
- Udalaren erabakiak argitaratzeko, betetzeko eta betearazteko agintzea.
- Alkateordeak izendatzea.
- Legeek berariaz ematen dizkieten gainerakoak, eta legeek udalerriri ematen dizkietenak, horien organo jasotzailearen izendapenik egiten ez duenean.

Alkateak bere eginkizunak eskuordetu ditzake, honako hauek izan ezik: Osoko Bilkurak eta Tokiko Gobernu Batzordea deitzea eta horietan buru izatea, kalitatezko botoa erabiliz berdinketak haustea, kreditu-eragiketak ituntzea, langile guztien buru gorena izatea, funtzionarioak zerbitzutik bereiztea eta langileak kaleratzea eta (\*) marka dutenak. Orobat, plangintzari buruzko eginkizunak eskuordetu ditzake, baina Tokiko Gobernu Batzordeari soilik, halakorik balego.

- 
- **Alkateordeek** alkatea ordezkatzeko dute, izendapenaren hurrenkeran, alkaterik ez dagoenean edo kanpo edo eri dagoenean.
  - Alkateak izendatuko ditu alkateordeak, Tokiko Gobernu Batzarreko kideetatik aukeratuta (halakorik balego), edo, bestela, zinegotzietatik.
  - Alkateordeek, alkatea ordezkatzeko gain, alkateak kasua bada eskuordetuko dizkien eginkizunak beteko dituzte.

- 
- Alkateak eta hark libreki izendatutako zinegotziek osatzen dute **Tokiko Gobernu Batzordea**; izendatutako zinegotzien kopuruak ezin du, inola ere, legeko zinegotzi kopuruaren herena gainditu.



- Alkateak libreki izendatu eta kargugabetzen ditu Tokiko Gobernu Batzarreko kideak eta horren berri eman behar dio Osoko Bilkurari, hura jakinaren gainean egon dadin.
- Gobernu Batzarraren berariazko eginkizuna da alkateari laguntzea eta aholku ematea bere eginkizunetan. Gainera, beste udal organoek eskuordetuko dizkioten eginkizunak beteko ditu, edo, aurrerantzean legeak emanen dizkionak.

- 
- **Azterketa, txosten eta jarraipen organoek** helburu izanen dute azterketak, txostenak eta kontsultak egitea Osoko Bilkuraren onespenera jarriko diren gaiez eta segimendua egitea alkatearen, Tokiko Gobernu Batzarraren eta ordezkariak duten zinegotzien kudeaketari, ezertan galarazi gabe Osoko Bilkurari dagozkion kontrol eskumenak.
  - Udalbatza osatzen duten alderdi politiko guztiek eskubidea izanen dute organo horietan parte hartzeko, eta, hala, alderdi horietako zinegotziek parte hartuko dute horietan, osoko bilkuran duten proportzio berarekin.

- 
- **Osoko Bilkura** toki entitatearen gobernu organo gorena da, eta zinegotzi guztiek osatzen dute, alkatea buru dela.
  - Honako eskudantzia hauek dagozkio Osoko Bilkurari:
    - Gobernu organoen kontrola eta fiskalizazioa (\*).
    - Honako gai hauei buruz erabakitzea: udalerrien arteko erakundeetan parte hartzea; udalerriaren mugarteak aldatzea; toki entitate txikiak edo organo kontzentratu gabeak sortzea nahiz deuseztatzea; hiriburutza edo izena aldatzea; udalerriaren ikurrak hartzea edo aldatzea (\*).
    - Plangintza orokorra hasiera batean onestea eta planen eta gainerako antolamendu-tresnen udal tramitazioari bukaera ematea onestea (\*).
    - Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onestea (\*).

- Zerga izaerako baliabide propioak zehaztea; aurrekontuak onestea eta aldatzea; bere eskumenen arloko gastuak antolatzea; eta kontuak onestea (\*).
- Zerbitzuak kudeatzeko eta espedienteak udalekotzeko moduak onestea (\*).
- Beste administrazio publiko batzuen eskumenak eskuordetzan hartzea onestea (\*).
- Eskumen-gatazkak planteatzea beste toki entitateei eta gainerako administrazio publikoei (\*).
- Langileen arloari dagokionez:
  - Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onestea (\*).
  - Funtzionarioen ordainsari osagarri finkoen eta aldizkako zenbatekoa finkatzea (\*).
  - Aldi baterako langileen kopurua eta araubidea finkatzea (\*).
- Ekintza judizial eta administratiboak eta udalbatzaren defentsa Osoko Bilkuraren eskumeneko gaietan.
- Ekintzen kaltegarritasunaren deklarazioa.
- Jabari publikoaren ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea (\*).
- Kreditu eragiketak ituntzea eskumen hori alkatearen esku ez dagoenean.
- Kontratazioak, alkatearen eskumena zehazteko ezarritako mugak gainditzen dituen.
- Obra eta zerbitzu proiektuak onestea, horiek kontratatzeke edo esleitzeko eskumena badu, eta, kasu guztietan, aurrekontuan jasota ez badaude oraindik ere.
- Ondasunak erostea eta ondasun higigarriak eta higiezinak besterentzea, horien balioa alkatetzaren eskumenetik gora baldin badago.
- Gehiengo berezia eskatzen duen beste edozein (\*).

- Alkatearen aurkako gaitzespen-mozioa eta alkateak proposatutako konfiantza-galdea bozkatzea (\*).
- Legeek berariaz esleitzen dizkieten gainerakoak.

Osoko Bilkuraren eskumenak alkatearen edo Tokiko Gobernu Batzordearen esku utz daitezke, (\*) marka dutenak izan ezik.

## ■ **Borondatezko antolaketa**

- Aipatu bezala, legeek arlo honetan ezarritako arauak errespetatuz (nahitaezko antolamendua), toki entitateek berariazko antolamendu eta funtzionamendu araubidea ezar dezakete, beren premia zehatzei erantzunen diena.
- Osoko Bilkurari dagokio finkatzea entitate bakoitzaren antolamendu berezitasunak –hau da, beren eraketa-. Bi sistemaren bidez egin daiteke:
  - Udal antolamenduaren erregulazio orokorra, Erregelamendu Organikoaren bidez.
  - Antolamenduko alderdi zehatzak erregulatzea, Erregelamendu Organikoa onartzeko beharrezkoak diren berme berdinekin onartutako akordioen bitartez.
- Borondatezko organoen eginkizunak:
  - Kontsulta, txostena edo aholkularitza: lan-taldeak.
  - Kudeaketa: kontzentratu gabeko organoak, barruti-batzordea, kasurako.

## ■ **Udalkideen estatutua**

- Udalkideen estatututzat jo ditugu zinegotzi-karguak berarekin dituen eskubide eta betebeharrak guztiak.
- Udalbatzetako kideek **eskubideak** dituzte, eta honako hauek dira garrantzitsuenak:
  - Osoko Bilkuraren eta gainerako udal organoen bileretan egoteko eta parte hartzeko eskubidea.
  - Legez ezarritako ordainsariak eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea, udalak erabakitzen dituen baldintzetan.
  - Talde politikotan eratzeko eskubidea, ezarriko diren moduetan eta eskubide-betebeharrekin, edo, kasua bada, kide ez atxiki gisa jarduteko eskubidea.
  - Udalbatzaren esku dauden aurrekariak, datuak edo informazioak eskuratzeko, beren eginkizuna betetzeko beharrezkoak baitira. Eskubide

hori gauzatzeko eskaera, hori aurkeztu eta hurrengo egunetik hasita, bost egun naturaleko epean ebatzi beharko da arrazoiak emanaz.

▪ Honako hauek dira udalbatzetako kideek dituzten **betebehar** garrantzitsuenak:

- Arrazoi justifikatuengatik izan ezik, Osoko Bilkuretara joan beharra dute, baita, zer organotan parte hartzen duten, horietara ere.
- Isilpean gorde behar dituzte beren eginkizunetan jardun ahal izateko ematen zaizkien informazioak. Halaber, ez dute zabalduko aztertze ematen ahal zaien dokumentazioa.
- Ez dute beren kargua baliatuko merkataritza-, industria- nahiz lanbide-jardueretarako.
- Ez dute parte hartuko gaien eztabaidan, bozketan eta gauzapenean indarrean dagoen antolamendu juridikoan xedatutako kasuetan.
- Erantzukizun zibila edo penala izanen dute bere karguan egindakoengatik eta ez egindakoengatik.

▪ **Toki udalbatzetako kideen dedikazioaren araubidea.**

- Dedikazio eskusiboa.
- Dedikazio partziala.
- Dedikaziorik gabe. Udalbatzak onesten dituen bertaratze dietak eta gastuengatik indemnitazioak jasotzeko eskubidea.

➤ **Dedikazio eskusiboaren araubidea:**

- Karguari arduraldi osoa eskaintzea dakar eta gizarte segurantzaren altan ematea.
- Udalbatzak erabaki bidez zehaztu beharko ditu zein kargu egongo diren egoera horretan eta jasoko duten ordainsaria.
- Ez da bateragarria bertaratze dietak jasotzearekin.

➤ **Dedikazio partzialaren araubidea:**

- Gizarte segurantzaren altan ematea dakar.
  - Osoko bilkuraren erabakia behar da arduraldi mota horretan egongo diren karguak zehazteko eta jasoko duten ordainsaria finkatzeko.
- **Ordainsariak eta indemnitzazioak** udal aurrekontuan jaso beharko dira eta NAO-n eta ediktuen taulan argitaratu beharko dira.
- **Gehieneko hautetsi kopurua dedikazio eskusiboarekin**

<b>Gehieneko hautetsi kopurua dedikazio eskusiboarekin</b>	
<b>Biztanleak</b>	<b>Hautetsi kopurua</b>
100.001etik 300.000ra	18
35.001etik 50.000ra	11
20.001etik 35.000ra	10
15.001etik 20.000ra	7
10.001etik 15.000ra	5
3.001etik 10.000ra	3
2.001etik 3.000ra	2
1.001etik 2.000ra	1
< 1.001	0

➤ **Dedikazio eskusiboari dagokion gehieneko ordainsaria** <sup>4</sup>

Estatuko Aurrekontu Orokorrek zehaztuko dute urtero toki udalbatzetako kideek ordainsari eta bertaratze kontzeptu guztiengatik jaso dezaketen gehieneko muga.

<b>Biztanleak</b>	<b>Zenbatekoa €</b>
150.001etik 300.000ra	92.928,03 euro
20.001etik 50.000ra	63.888,61 euro
10.001etik 20.000ra	58.080,05 euro
5.001etik 10.000ra	52.272,61 euro
1.000tik 5.000ra	46.464,02 euro

➤ **1.000 biztanletik beherako udalerrietako udalbatzak**

<b>Dedikazio partziala</b>	<b>Zenbatekoa €</b>
Dedikazio partziala %75	34.848,05 euro
Dedikazio partziala %50	25.555,04 euro
Dedikazio partziala %25	17.424,64 euro

## Udalaren funtzionamendua

- **Funtzionamendu administratiboa**
- Udalak, bere jardunean, gainerako toki entitateek bezala, bete behar ditu toki araubideko foru legedi eta legedi orokor indardunean araututako prozedura eta araubide juridikoa.

---

<sup>4</sup> 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruz abenduaren 23ko 31/2022 Legearen Hogeita Zazpigarren Xedapen Gehigarria.

- Legeari men eginez jardun behar dute, ekonomiaren, eraginkortasunaren, parte-hartzearen eta gardentasunaren printzipioekin bat.
  - Gardentasunaren printzipioari dagokionez, toki entitateek bete behar dute Gardentasunari, Informazioaren Sarbideari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legean xedatutakoa. Betebehar horiek entitate bakoitzaren gardentasun atarrietan gauzatu behar dira. Orobat, foru lege horrek arautzen du zertarako eskubidea duten herritarrek udalaren informazio publikoari dagokionez.
  - Toki entitateen prozeduraren eta araubide juridikoaren arloan, kontuan hartu behar dira, hurrenez hurren, 39/2015 eta 40/2015 legeak.
  - Toki entitateek zuzenean erantzungo dute zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz edo agintarien, funtzionarioen nahiz agenteen jardueraren ondorioz partikularren ondasunetan eta eskubideetan eragindako kalteen eta galerengatik, administrazioaren erantzukizunari buruzko legeria orokorrean ezarritako baldintzetan.
- ***Bilkuren araubidea***
- Maiztasun honekin egin behar da **osoko bilkura** arrunt bat, gutxienez:
    - Hilean behin 20.000 biztanletik gorako udalerrietan.
    - Bi hilean behin 5.001 biztanletik 20.000ra bitarteko udalerrietan.
    - Hiru hilean behin 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan.
  - Honelakoetan egin behar da **osoko bilkura berezia**:
    - Udalburuak erabakitzen duenean.
    - Gutxienez Udalbatzako legezko kideen laurdenak hala eskatzen dutenean. Zinegotzi bakoitzak ezin izanen du urtean hiru baino gehiago eskatu.
      - Halakoetan osoko bilkura ezin izanen da 15 egun baliodunetik gora atzeratu, bilera egiteko eskaera aurkezten denetik kontatzen hasita.
      - Udalburuak aipatutako epean deituko ez balu Osoko Bilkura, automatikoki epe hori bukatu eta bosgarren egunerako deituta geratuko litzateke, eguerdiko 12:00etarako.



- Lege xedapen batek hala erabakitzen duenean.
- **Presako bilkura bereziak** dira udalburuak aipatu presakotasunez deitutakoak. Egiazki burutu ahal izateko, osoko bilkurak gehiengo soiluz presakotasun hori onartu behar du. Halaber, deialdirik gabeko presako bilkura bereziak egin daitezke udalbatzako kide guztiak eta idazkaria presente badaude, eta horiek bilera egitea aho batez onesten badute.
- Bilkura deitzeko baldintzak:
  - Udalburuari dagokio deialdia egitea.
  - Deialdia bilera eguna baino bi egun balioudun lehenago egin behar da, presako bilkura berezia ez bada behintzat.
  - Deialdiak honako hauek jaso beharko ditu: bilkuraren data, ordua eta lekua, eta gai-zerrenda.
  - Gai-zerrendan jasotako gai-zerrendaren buruzko dokumentazio osoak udalbatzako kideen eskura egon beharko du, idazkaritzan, deialdia egin den egunetik beretik.
- Osoko Bilkurak publikoak dira.
- ***Erabakiak eta ebazpenak***
  - Bileretan dauden udalbatzako kideen bozketa bitartez hartzen dira erabakiak.
  - **Bozketak arruntak, izendunak edo isilpekoak** dira. Oro har, bozketa arrunta erabiliko da, non ez duen erabakitzen udalbatzak bozketa izenduna egitea. Bozketa isilpekoa izan daiteke gai bati buruzko eztabaida ere isilpekoa bada, eta udalbatzak hala erabakitzen badu.
 

Bozketa izendunak izanen dira, ezinbestean, alkatearen aurkako zentsuramozioa eta alkateak proposatutako konfiantza-arazoari buruzko bozketa, hauteskunde-araubide orokorreko legerian xedatutakoaren arabera.
  - **Erabakiak**, oro har, bertan diren kideen **gehiengo soilaz** hartuko dira. Gehiengo soila izanen da baiezko botoak ezezkoak baino gehiago badira. Berdinketa suertatuz gero, bozketa berri bat egingen da, eta hala ere berdinketa gertatzen bada, udalburuaren **kalitateko botoak** erabakiko du.

**Gehiengoa osoa** izanen da kide anitzeko organoa osatzen duten kideen erdiak baino gehiagok bozkatzen badu erabakiaren alde.

- Osoko bilkura arruntetan, bere garrantzia eman behar zaio udalbatzako gainerako organoak kontrolatzera bideratutako zatiari eta bereizi behar da erabakiak hartzeko zatitik. Orobat, eraginkortasunez bermatu beharko da funtzionamenduan eta, hala badagokio, erregulazioan, udal talde guztiek parte hartzen dutela eske, galdera eta mozioetan.
- Gehiengo kualifikatua eskatzen duten erabakiak, legeria orokorraren arabera:
  - Ezinbestekoa da udalbatzako legezko kideen gehiengo osoaren aldeko botoa ondorengo erabaki hauek hartzeko:
    - Udalerriak sortzeko eta ezeztatzeko eta udalerriaren mugarteak aldatzeko.
    - Udalerriaz beherako erakundeak sortzeko, aldatzeko eta ezeztatzeko.
    - Udalerriaren mugaketa onartzeko.
    - Udalerriaren izena eta hiriburua aldatzeko.
    - Bandera, entseina edo ezkutua hartzeko edo aldatzeko.
    - Udaleko Araudi Organikoa onartzeko eta aldatzeko.
    - Mankomunitateak eta beste elkarte-antolakunde batzuk sortu, aldatu edo desegiteko, baita horiei atxiki, eta bertako estatutuak onartu eta aldatzeko ere.
    - Beren eginkizunak edo jarduerak beste administrazio publiko batzuei eskualdatzeko, baita beste administrazio batzuek emandako eskuordetzeak zein kudeaketarako gomendioak onartzeko ere, legeak nahitaez ezartzen ez baditu behintzat.
    - Ondasun publikoen aprobetxamendua edozein tituluz lagatzeko.
    - Ondasunak zein zerbitzuak bost urte baino gehiagorako emakidan emateko, beti ere, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %20 gainditzen badu.

- Monopolio-araubideko jarduerak udalak zein probintziak bere gain hartzeko, eta horiei dagokien zerbitzua kudeatzeko modu zehatza onesteko.
  - Finantza-eragiketak zein kreditu-eragiketak onesteko, eta kitatzeak eta itxarroteak emateko, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %10 gainditzen badu, baita Toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158.5 artikuluan aurreikusitako kreditu-eragiketak onesteko ere.
  - Hirigintzako legedian plangintza orokorrerako aurreikusitako tresnen tramitazioan Udalak hartu beharreko erabakiak hartzeko.
  - Ondasunak besterentzeko, horien kopuruak aurrekontuko baliabide arrunten %20 gainditzen badu.
  - Jabari publikoko ondasunen edo ondasun publikoen kalifikazio juridikoa aldatzeko.
  - Beste administrazio publiko batzuei ondasunak doan lagatzeko.
  - Legean zehaztutako gainerakoak.
- Erabakiak hartzeko, beharrezkoa izanen da **aldez aurreko txostena** ematea idazkariak, edo, kasua bada, kontu-hartzaileak edo legalki ordezkatuak duenak:
    - Gehiago berezia eskatzen duten gaien inguruko erabakiak hartzeko.
    - Udalburuak hala agintzen badu, edo kideen herenak hala eskatzen badute.
    - Toki araubidearen legediak eta, hala badagokio, legedi sektorialak jasotzen dituzten gainerako kasuetan.
  - Toki entitatetako kide anitzetako organoen erabakiak kasuan kasuko aktara erantsi behar dira.

Akta horretan honako hau jaso behar da: bilkura noiz hasi den, nor aritzen den bilkuraren buru eta nor diren joandako gainerakoak, zer landu den, emandako iritziak laburbilduz, zein diren bozketen emaitzak eta gorabeherarik izan ote den.

Idazkariak egin behar du akta, eta hurrengo bilkura arruntean bozketara jarriko da. Aktan jasoko da aurreko bilkuraren akta onetsi dela, baita bidezko

zuzenketak egin direla ere, kasua bada, baina ezin da inola ere aldatu erabakitakoaren funtsa.

Behin onetsita, Akten liburuan transkribitzen dira, alkatearen eta idazkariaren sinadurekin.

#### ■ **Erregelamenduak, ordenantzak eta bandoak**

- Toki entitateek **erregelamenduak egiteko ahala** dute, eta horiek egiteko eta dagozkien eskuduntzen esparruan, xedapen orokorrak emateko gaitasuna dute.
- Xedapen horiek **erregelamendu** bilakatzen dira, beren xedea toki administrazioaren antolaketa eta funtzionamendua arautzea denean. Horren adibiderik behinena erregelamendu organikoa da.
- Gainerako kasuetan, ordenantzaren forma hartzen dira. Askotariko gaiak hartzen dituzte barne ordenantzek: Ordenantza fiskalak, eraikuntzako ordenantzak, ondasun publikoen aprobetxamendurako ordenantzak etab.

#### ➤ **Erregelamenduak eta ordenantzak onesteko prozedura**

- Osoko Bilkurak hasiera batean onestea.
- Jendaurreko epea: Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta erabakia hartu duen erakundearen iragarki-oholean argitaratuta, gutxienez, hogeita hamar egun lehenago.
- Aurkeztutako erreklamazioen ebazpena eta Udalbatzaren behin betiko onespina.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoz onetsitzat joko da.

#### ➤ **Bandoak**

- Alkateak edo toki entitateko buruak bere eskuduntza-esparruan emandako bandoek aplikazio orokorra izanen dute lurraldean, betiere, legeen eta xedapen orokorren mende. Bandoak herriko usadio eta ohituren arabera argitaratuko dira.

- **Toki entitateen erabakien kontrako errekurtsok**
- Oro har, honako hauek jar ditzakete toki entitateen erabakien aurkako errekurtsok:
  - Egintza edo erabakia baliogabetzeko bidezko interesa duenak.
  - Egintza edo erabakiaren aurka bozkatu duten zinegotziek.
  - Herritarrek, nahiz eta egintzak edo erabakiak zuzen ukituta ez egon, gora jotzeko errekurtsok jarritz Nafarroako Auzitegi Administratiboan<sup>5</sup>.
  - Foru Erkidegoko Administrazioak.
  - Estatuko Administrazioak.
- Errekurtsok hauek jar daitezke: (aukeran)
  - Foru bidetik. Gora jotzeko errekurtsok, Nafarroako Administrazio Auzitegira zuzendua, hilabeteko epean errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik hasita.
  - Bide orokorretik. Administrazioarekiko auzi-errekurtsok, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko organo eskudunetara zuzendua. Aurrez, berraztertze aukerako errekurtsok jarri beharko da, egintza edo erabakia hartu duen organora zuzendua.
- Gardentasunaren arloan eta kontratuen arloan, badago berriazko erreklamazioak egitea; Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluan eta Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian aurkezten dira, hurrenez hurren.

---

<sup>5</sup> Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak, gora jotzeko errekurtsok Nafarroako Administrazio Auzitegian jartzeko, legitimazio berezi bat ezartzen du, adierazten baitu ez dela beharrezkoa zilegizko interesa izatea toki entitate baten egintza edo erabakia aurkaratu nahi duenak, aski baita bizilagun izaera izatearekin.

- **Foru Administrazioak toki entitateen jarduerak aurkaratzea**
- Toki entitate baten egintza edo erabakiak Foru Komunitatearen eskumeneko gaietan ordenamendu juridikoa urratzen badu edo bere eskumenei kalte eragiten badie, Nafarroako Gobernuak:
  - Egintza baliogabetzeko eskatzen ahalko dio toki entitateari.
  - Hamabost egun balioduneko epean egin beharko da errekerimendu hori, erabakiaren komunikazioa jasotzen denetik hasita.
  - Zuzenean, egintza edo erabakia aurkaratzen ahalko du administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean.

### Udalerria: harremanak

- **Harreman motak**
- Bere xedeak betetzeko, udalak harremanak landu behar ditu bai beste toki entitateekin, bai beste herri-administrazio publikoekin: harreman horiek eta oinarri izanen dituzten printzipioak dira 'administrazioen arteko harremanak' izenez ezagutzen ditugun horiek.
- **Toki entitateen arteko harremanak**
- Oro har, xede edo helburu bikoitz baterako jar daitezke harremanetan toki entitateak:
  - Ondasunak edo zerbitzuak elkarrekin erabiltzeko edo zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko, udalaren eskumenekoak eta bion interesekoak badira.
  - Instituzio gisa beren interes komunak defendatzeko eta sustatzeko.
- Aurreko atalean aipatutako lehendabiziko helburua betetze aldera, lankidetzeta eta elkarlana dira udalen arteko harremanak gidatu behar dituzten printzipioak, entitateei beren kudeaketan eraginkortasun handiagoa lortzea ahalbidetuko dietenak.

- Makina bat mekanismo dago lankidetzari hori garatzeko, bakunak nahiz konplexuak; azken horiei dagokienez, nortasun juridikoa duten egiturak sor daitezke toki entitateen arteko lankidetzarako. Tresna horietatik honako hauek azpimarratuko ditugu:
  - Udalen arteko lankidetzari-hitzarmenak.
  - Udalen arteko sozietateak.
  - Udalerrien arteko elkarteak eta mankomunitateak.
- Interes komun horien alde egiteko eta horiek sustatzeko, toki entitateak xede horretarako sortutako elkarteetan nahiz federazioetan bildu daitezke. Horien lurralde-eremua autonomia-erkidegokoa nahiz Estatukoa izan daiteke.
- ***Harremanak beste administrazio publiko batzuekin***
- Konstituzioak autonomia ematen die Estatuaren lurraldea antolatzen duten administrazio publikoei, eta, autonomia horrek baldintzatu eta zehazten ditu administrazio horiek (alegia, Estatuarena, autonomia erkidegoena eta udalena) elkarrekin dituzten harremanak zuzendu behar dituzten printzipioak. Aipatu printzipioak, funtsean, honako hauek dira:
  - Informazioa elkarri ematea.
  - Lankidetzari.
  - Koordinazioa.
  - Bakoitzaren eskumen-esparruekiko errespetua.
  - Fede ona, leialtasun instituzionala eta egiazko konfiantza.
- Estatuko Administrazioa eta autonomia-erkidegoa udalekin lankidetzan arituko dira, bai zerbitzu lokaletan, bai denen intereseko gaietan, eta, horretarako, borondatezko teknikak eta mekanismoak erabiliko dira eskuarki eta lehentasunez.
- Administrazioen jarduerak, hasiera batean, borondatezko negoziazio-sistemen bitartez koordinatu behar dira, eta soilik mekanismo horiek administrazio-jardunean eraginkortasuna eta koherentzia bermatzeko baliagarriak ez badira, inposa dakioke toki administrazioari koordinazioa (nahitaezko koordinazioa).

Estatuko Administrazioak edo autonomia-erkidegokoak helburuak ezarriko ditu plan sektorialen bidez, eta administrazio publiko inplikatuak beren jarduna helburu horiek betetzera bideratuko dute.

#### ■ **Udalaren autonomiaren defentsa**

- Beren eskumenen defentsan eta Espainiako Konstituzioak toki entitateei ematen dien autonomia bermatzeko, udalek 'tokiko autonomiaren defentsarako gatazkak' aurkez diezazkiokete Konstituzio Auzitegiari.
- Honako hauek dute zilegitasuna halako gatazkak aurkezteko:
  - Estatuko nahiz autonomia-erkidegoko legearen jasotzaile bakarra den udala, uste denean hark toki entitatearen autonomia urratzen duela.
  - Lege-maila duen xedapenaren aplikazio eremuan dauden udalerrien zazpirenak (gutxienez), baldin eta, betiere, dagokion lurralde-eremuko biztanleria ofizialaren seirena ordezkatzeko badute (gutxienez).
- Gatazka hori formalizatzeko, udalbatzako Osoko Bilkuraren gehiengo osoak erabakia onetsi behar du eta irizpen nahitaezkoa baina ez loteslea eskatu beharko zaio Estatu Kontseiluari edo dagokion autonomia-erkidegoko organo aholku-emalari, udalbatzak autonomia-erkidego berekoak diren edo batekoak baino gehiagokoak.

### Udaleko langileak

#### ■ **Motak**

- Funtzionario publikoak.
- Aldi baterako langileak.
- Kontratupeko langileak:
  - Finkoa lan-araubidean.
  - Aldi baterako:
    - Lan-araubidean.
    - Administrazio-araubidean.



### ■ **Funtzio publikoak**

- Hauek dira ezinbesteko funtzio publikoak Nafarroako udal guztietan:
  - Idazkaritzakoa, fede publikoa eta aginduzko lege-aholkularitza bere gain hartzen dituen.
  - Kontu-hartzailtzakoa, bere gain hartzen dituen barneko kontrola eta fiskalizazioa, aholkularitza, kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuak eta kontabilitatea.
  - Diruzaintzakoa, bere gain hartzen dituen funtsa erabili eta gordetzea eta diru-bilketa.
- Funtzio publiko hauek dagozkie foru administrazioak emandako gaikuntza duten funtzionarioei:
  - Idazkaritzakoa.
  - Kontu-hartzailtzakoa.
- Toki entitateak eksklusiboki aukeratutako funtzionarioei dagozkien funtzio publikoek agintea dakarte bere baitan; esate baterako, polizia eginkizunak.
- Gainerako udal funtzioak eta eginkizunak funtzionarioek nahiz lan-kontratuko langileek bete ditzakete.

### ■ **Derrigorrezko lanpostuak**

- Toki Administrazioa Berrantolatzeke otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak aldaketa garrantzitsu bat dakar idazkaritzako eta kontu-hartzailtzako lanpostuetan.
- Izan ere, zehazten du kasu hauetan egonen dela idazkaria:
  - 1.500 biztanleko edo hortik gorako udalerrietan. Nolanahi ere, 1.500 biztanletik beherako udalerrietan ere egon daiteke idazkaritzaren berezko lanpostua, baldin eta foru legeak berak ezartzen dituen baldintzetako bat betetzen bada eta Osoko Bilkurak beharrezko erabakia hartzen badu legezko kideen gehiengo osoarekin.
  - Elkarte tradizionaletan, haien araudian hala ezarrita badago.

- Eskualdeetan.
- Berriazko lanpostua duten udalerrien mankomunitateetan.
- Eta planifikazio orokorreko mankomunitateetan.
- Kontu-hartzaitzako lanpostuak nahitaez egon behar du:
  - 3.000 biztanleko edo hortik gorako udalerrietan. Nolanahi ere, 2.000 biztanletik gorako udalerrietan ere egonen da berriazko lanpostu hori baldin eta lanpostua plantilla organikoan badute sortua eta hari eutsi badiote 4/2019 Foru Legeak indarra hartu arte.
  - Elkarre tradizioan, barneko araudiak hala ezartzen duenean, baldin eta urteko gastu korronea hiru milioi eurotik gorakoa izan bada azken bost urtean.
  - Planifikazio orokorreko mankomunitateetan.
  - Eskualdeetan.
- Hala ere, aldi baterako, honako lanpostu hauek ere beteko dira:
  - Administrazio Zerbitzuetako Batasunetan hutsik dauden idazkaritzako eta kontu-hartzaitzako lanpostuak.
  - 1.500 edo 3.000 biztanletik beherako toki entitateetan, hurrenez hurren, hutsik dauden idazkaritzako eta kontu-hartzaitzako lanpostuak.
  - Plantilla organikoan berriazko lanpostuak dituzten mankomunitateetan hutsik dauden kontu-hartzaitzako lanpostuak.
- ***Idazkaritzarako eta kontu hartzaitzarako eskatzen den titulua***
- Idazkari izateko, nahitaezkoa da ondoko titulazio akademikoetako bat izatea, edo kasuan kasuko graduaren titulua, edo horien baliokideak:
  - Zuzenbideko lizentzia, Zientzia Politiketako eta Administrazioako lizentzia, Soziologiako lizentzia edo Zientzia Politiketako eta Soziologiako lizentzia.

- A mailako kontu-hartzaile izateko, nahitaezkoa da ondoko titulazio akademikoetako bat izatea, edo kasuan kasuko graduaren titulua, edo horien baliokideak:
  - Ekonomia- eta Enpresa-zientzietako lizentzia, Zuzenbideko lizentzia, Enpresen Administrazioiko eta Zuzendaritzako lizentzia edo Zientzia Aktuarial eta Finantzarioetako lizentzia.
  
- ***Gaikuntza duten funtzionarioen lanpostuak betetzea***
  
- Legeak idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako lanpostuak betetzeko aurreikusten duen sistema 'merezimendu-lehiaketa' bidezkoa da, jabetzako lanpostua dutenen artean.
  
- Lehiaketa egin eta hutsik gelditzen diren lanpostuak oposizio-lehiaketa ireki bidez deituko dira.
  
- Foru Komunitateko Administrazioak deituko eta ebatziko ditu bai merezimendu-lehiaketa, bai oposizio-lehiaketa. Bi prozeduretan, toki administrazioiko ordezkariak hartu behar dute parte.
  
- Lanpostuak betetzeko sistema hori denboran etenda egon da etorriko den Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru Legearen baldintzapean. Hala eta guztiz ere, 2012an lanpostu zehatz batzuetarako gaikuntza prozesu bat egin zen martxoaren 7ko 4/2011 Foru Legearen babesean, lege horrek aurreikusitako atalaseen barruan zeuden udalerrietarako. Horren ostean, Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak lanpostuak betetzeko sistema bat arautu zuen baina ez da oraindik ezarri.
  
- Bien bitartean, maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea onetsi da, idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako egonkortze prozesuak arautzen dituen eta idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako lanpostu hutsak betetzeko oposizio-lehiaketa aske bat ere barne hartzen duena. Egun, adierazitako egonkortze prozesuak izapidetzen ari dira eta 2024ko abendurako amaiturik egon beharko dira. Prozesu horiekin, idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako lanpostu asko beteko dira.

- ***Gaikuntzarik behar ez duten funtzionarioak aukeratzea***
- Udaltzak egiten du aukeraketa, oposizio-lehiaketa bitartez edo oposizio bitartez, langileak aukeratzeko legerian ezarritako arauak betez.
  
- ***Langileen estatutuak arautzen dituen gaiak***
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura dauden Langileen Estatutuaren Testu Bategina da langileen arloan aplikatu beharreko araudia, baita hori garatzen duten hainbat erregelamendu ere. Erregelamendu horiek honako hauek arautzen dituzte:
  - Langileak aukeratzeko sistemak.
  - Funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak.
  - Ordainsariak.
  - Oporrak, lizentziak eta baimenak.
  - Diziplina araubidea.
  - Funtzionarioen egoera administratiboak.
  - Eskubide pasiboak.
  - Ordezkaritza organoak.

# BESTE TOKI ENTITATE BATZUK

---

## Kontzejua

- Oro har, kontzejuak udalerraren ezaugarriak ditu, baina kontzejuaren lurraldea eta biztanleria txikiagoak dira kontzejua barne hartzen duen udalerrarenak baino, integrazio horregatik hain zuzen ere.
- Udalerrien antolamenduari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko xedapenak ezartzen zaizkie kontzejuei oro har, ezertan galarazi gabe antolamenduaz dituzten berezitasunak.
- Kontzejua antolatzeko eta gobernatzeko moduak:
  - Kontzeju Irekia.
  - Batzordea.
- 50 biztanletik beherako kontzejuek osatuko dute Kontzeju Irekia, edo, biztanle gehiago izanik, beren borondatez hala eratzea erabakitzen dutenak; horretarako, Batzordeak hala erabaki behar du gehiengo osoz, kontzeju hauteskundearen deialdia egin baino lehen, eta gero horren berri eman Foru Komunitateko Administrazioari. Kontzejua antolatzeko modu horretan, alkateari edo kontzeju-buruari eta herritarren batzarrari dagozkie gobernua eta administrazioa.
- 50 biztanleko edo hortik gorako kontzejuetan, gobernua batzorde bati dagokio, zeina alkateak edo kontzeju-buruak eta lau kidek osatzen baitute; hautesle-errodan dauden eta botoa emateko eskubidea duten kontzejuko bizilagunek aukeratuko dituzte, bizilagunen artetik. 1.000 biztanleko edo hortik gorako kontzejuetan, buruak eta beste sei kidek osatuko dute Batzordea.
- Kontzeju Irekiko kontzejuek, halaber, Batzordea izan dezakete, hala erabakitzen badute gehiengo osoz Kontzejuko kideek kontzeju hauteskundearen deialdia egin baino lehen eta horren berri ematen badiote Foru Komunitateko Administrazioari.

- Kontzejuen eskumenei dagokienez, aipatzekoa da legeak ez duela banaketa itxirik egiten udalen eta kontzejuaren eskumenen artean. Horrek praktikan ekar dezake –eta berez, hala dakar– kontzejuetan eskumen-esparruarekiko identitaterik ez egotea.
- Kasu guztietan, dena dela, kontzejuari dagokio eskumen hauek erabiltzea:
  - Bere ondarea gobernatu, zaindu eta probestea.
  - Kontzejuaren barrutiko landa-bideak kontserbatu, mantendu eta zaintzea, baita soilik kontzejuaren interesekoak diren gainerako ondasunak eta zerbitzu publikoak ere.
  - Hirigintza-lizentzia ematea, udalaren alde zuzeneko txosten nahitaezkoa eta loteslea jasota.
  - Kaleko garbiketa.
  - Kaleko argiteria.
  - Hilerria zaindu eta mantentzea.
  - Kontzejuaren artxiboa.
  - Herriko festak.

Horiez gain, beste edozein lan egin edo zerbitzua eman dezake kontzejuak, baldin eta, udalaren eskumena izanik, soilik kontzejuaren interesekoa bada eta udalak egiten edo ematen ez badu.

- Kontzejuak udalerraren esku utz dezakete beren eskumenen erabilera.

Toki Administrazioa Berrantolatzeke Legeak berriazko kasu bat sartu zuen eskumenak eskuordetzeko: eskumenaren kudeaketa partekatua. Kasuan kasuko udalerrarekin hitzartu behar da sistema hori, baina Foru Legeak zehazten du zer baldintza bete behar duen nahitaez.

- Kontzeju berriak **sortzeko** baldintzak:
  - 100 biztanletik gorako herriak (Legeak jasotzen dituen salbuespenak izan ezik).

- Behar adina baliabide izatea kontzejuaren xedeak betetzeko.
- Kontzejua sortzeak ez gutxitzea udalaren zerbitzuen kalitatea.
- Batera gertatzea inguruabar geografiko, historiko, sozial, ekonomiko edo administratiboak, nahitaezko edo komenigarri egiten dutenak kontzejua eratzea.
- Kontzejuak **azkentzea**.- Kontzejua azkendu daiteke gutxieneko biztanle-kopuru jakin batera ez heltzeagatik (Legeak ezartzen du), edo kontzejuko biztanleek hala erabakita. Azter ditzagun zein diren Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak kontzejua azkentzeko aurreikusten dituen zioak:
  - Bertan bizi diren herritar gehienek idatziz hala eskatzea.
  - Kontzejuaren gobernu-organoak eskatzea, bi herenen gehiengoz onartuta.
  - Hautagaitzarik ez aurkeztea ondoz ondoko bi kontzeju hauteskundeetan; horretarako, hauteskunde partzialak ez dira kontuan hartuko.
  - Agerikoa izatea kontzejuak ez duela behar adinako baliabide ekonomikorik, materialik edo langilerik bere eskumenak erabiltzeko eta berezko dituen xedeak betetzeko.

## Mankomunitateak

- Mankomunitateak **udalerrien elkarreak** dira, obrak edo beren eskumeneko zerbitzu batzuk elkarrekin egiten dituztenak.
- Nortasun juridikoa dute, baita ahalmen juridikoa ere beren berariazko helburuak betetzeko, eta nork bere estatutuak bete behar ditu.
- Honako hau da mankomunitate bat eratzeko prozedura:
  - Hasierako onespena, gehiengo soilaz, interesa duten udalerrietan.
  - Estatutuak prestatzea: udalerrri guztietako zinegotziek osatutako batzarrak proiektua hasiera batean onestea, proiektua jendaurrean edukitzea, alegazioak ebaztea, Foru Komunitateko Administrazioak txostena egitea,

udalerrri guztiek gehiengo osoz onestea Estatutuak eta Estatutuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

- Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko Legeak mankomunitateak toki entitatetzat ditu, baina aurreikusten du azkentzen joanen direla eskualdeak eratzen joan ahala eta mankomunitateen eskumenak bere gain hartu ahala.

## Eskualdeak

- Adierazi moduan, Toki Administrazioa Berrantolatzeko 4/2019 Foru Legeak eskualdeak Nafarroako toki entitatetzat ditu.
- Eskualdeak lurraldeko toki entitateak dira, udalez gaindiko izaera, nortasun juridiko propioa eta beren helburuak betetzeko gaitasuna eta autonomia dutenak.
- Lege horrek ezaugarri eta interes komunak dituzten udalerrri mugakideez osatutako hamabi eskualde sortzea aurreikusten du. Eskualde bakoitzaren lurralde mugaketa eta udalerrriak adierazitako Foru Legearen I. Eranskinean jasotzen dira.
- Eskualde bakoitza sortzeko foru legeak aurreikusten ahalko du, eskualde-mugaketan aurreikusitako kasuetan, eskualdean azpieskualde bat edo bi egoteko aukera, ezaugarri sozial, geografiko edo administratibo batzuek badaudenean, eskualdeko udalerrietako batzuek baino ez dituztenak. Kasu horietan, azpieskualdeak kontseilu baten bidez proposamenak eta ekimenak egiten ahalko dizkio eskualdeko batzarrari, eta aginduzko kontsulta loteslea eskatu beharko zaio azpieskualdearen interesen esparruari nabarmen eragiten dioten gaietan.
- Eskualdeak sortzeko prozesua: Foru lege baten bidez sortuko da eskualde bakoitza, bai eta ezarri ere haren izena, lurralde esparrua, egoitza, baliabide ekonomikoak eta eskumenak. Era berean, foru lege hark arautuko du nola egingen den ordura arte udalez gaindiko beste entitate batzuen esku zeuden eginkizunak, ondasunak eta langileak eskualdera eskualdatzeko prozesua.
  - Eskualdea sortzeko prozesua hasten ahalko da:
    - a. Kasuko udalek proposatuta, honakoen ekimenez:



- Eskualdea osatu behar duten udalen herenarena, gutxienez.
  - Udal horietako baten edo batzuen, baldin eta kasuko lurraldeko hautets-eroldaren erdia ordezkatzeko badute gutxienez.
- b. Nafarroako Gobernuaren ekimenez baldin eta indarra hartzen duenetik hemezortzi hilabeteko epean ekimen hori ez badute gauzatu zerikusia duten udalek.
- o Bi kasuetan, entzunaldia emanen zaie proposatutako eskualde-mugaketaren barruan dauden kontzejuei.
  - o Gobernuak erabakia hartuko du eskualde-entitatearen bidezko erabakia eta behin betiko osakeraz, toki administrazioaren arloko eskumena duen departamentuak txostena eman eta gero. Ezin izanen du jarrerarik adierazi eskualdearen eraketaz, eta prozedura artxibatuko da, baldin eta eskualdearen parte izateko proposatutako udalerrien bi bostenek sartzearen kontra daudela berriaz adierazten badute, betiere udalerririk horiek gutxienez ere kasuko lurraldeko hautetsle eroldaren erdia ordezkatzeko gero.
  - o Gobernuaren erabakia eskualdea sortzearen aldekoa bada, Eskualdeko Batzorde Teknikoa sortuko da, kide hauekin osatuta: Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak, eskualderako proposatutako esparruan sartutako udalen eta udalez gaindiko entitateenak eta ukitutako langileenak. Batzorde horrek txosten bat egingo du Foru Legeak adierazitako alderdi guztiak jasota: Eskualdean sartu behar diren udalez gaindiko entitateen langile, eginkizun, ondasun eta zerbitzuen eskualdaketak, azpieskualdeen eraketa eta eskualdeko batzarraren kide kopuruari buruzko proposamena.
  - o Azkenik, foru lege bidez onetsiko da.
- Eskumenak eta zerbitzuak: Eskualdeek arlo hauetan izanen dituzte eskumenak:
    - o Berezko eskumenak: Oinarrizko gizarte zerbitzuak oinarrizko legeriak udalerrietarako gordetzen dituen eskumenak salbu, uraren goi hornidurako sareak, hondakinen tratamendua, lurraldearen antolamendua eta hirigintza udalerrietarako gordetzen diren eskumenak salbu; idazkaritza eta kontu-hartzaitzako zerbitzu administratiboak

1.500 edo 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalei, hurrenez hurren, eta Foru Legeak aurreikusitako salbuespenei jarraiki, betiere.

- Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenen esparruan legeria sektorialak propio gisa esleitzen dizkien eskumenak.
  - Eskualdeek sostengua eta laguntza emanen dizkiete beren lurralde esparruko udal eta kontzejuei; besteak beste: Hirigintza- eta ingurumen-gaietako aholkularitza, laneko arriskuen prebentzioa, itzulpengintza zerbitzuak eta abar. Edonola ere, Nafarroako Gobernuak laguntza emateko eginkizun hori sustatuko du.
  - Beren esparruko toki entitateek eskuordetzen edo esleitzen dizkieten eskumenak.
- Gobernu Organoak: Eskualde guztietan egonen dira lehendakaritza, gobernu batzordea eta eskualdeko batzarra.

Batzarraren kide kopurua eskualdea sortzeko foru legean zehaztuko da. Sorkuntzako foru lege horrek bestelakorik adierazi ezean, Batzarreko kideen bi heren eskualdea osatzen duten udaletako osoko bilkurek izendatuko dituzte eta beste herena hautatuko da egin diren azken udal hauteskundeetan alderdi, koalizio, federazio eta hautesle-elkarte bakoitzak eskualdean lortutako boto-kopuruaren proportzioan.

## TOKI JARDUERAK, ZERBITZUAK ETA OBRAK

---

### Esku-hartzearen jarduera

- Toki entitateek esku har dezakete herritarren jardunean interes publikoaren defentsan.

Horretarako, esku-hartze horretan, herritar guztiak legearen aurrean berdinarik direla ezartzen duen printzipioa bete behar da, esku-hartzea justifikatzen duten helburuak eta bitartekoak egokitu, eta norbanakoen askatasunarekiko errespetu handiena erakusten duen bidea hautatu.

Esku hartzeko bitartekoak:

- Ordenantzak eta bandoak.
- Lizentzia aldez aurretik behar izatea, baita prebentziorako beste egintza batzuk ere.
- Aldez aurreko jakinarazpena edo erantzukizuneko adierazpena behar izatea, oinarrizko legedian xedatutakoarekin bat.
- Jarduera hasi ondoko kontrolari men egin behar izatea, egiaztatzeko jarduerari buruzko araudia betetzen dela.
- Banakako aginduak, egintza bat gauzateko edo debekatzeko.
- Ulertuko da lizentziak emanda daudela, jabetzarako eskubidea izan ezik, hirugarrenei kalterik egiten ez bazaie.
- Lizentziak indarrik gabe geldituko dira onuradunari ezarritako baldintzak betetzen ez badira eta, zer epetarako eman ziren, hura amaitzen denean.
- Onuradunaren ezaugarriei begiratu gabe emandako lizentziak eskualdatzen ahal dira, toki entitateari jakinarazi ondoren. Xedatze mugatuko lizentziak ezin dira eskualdatu.
- Toki entitateko buruari dagokio lizentziak eta baimenak emateko **eskumena**, non lege sektorialek ez dioten berariaz esleitzen Osoko Bilkurari edo Gobernu Batzordeari.
- Hilabeteko epean ebatzi behar dira **jarduera pertsonalei buruzko lizentziak eta toki entitatearen ondarea erabiltzeari buruzkoak**. Epe horretan ebazpenik ematen ez bada, ulertuko da ezesten dela.
- **Hirigintzako lizentziak:**
  - Udalerrietan hirigintzako lizentziak bi hilabeteko epean erabaki behar dira, partikularrak eskaerako agiri guztiak udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu dituenetik kontatzen hasita. Halakoetan ebazpenik ematen ez bada, ulertuko da eskaera ezesten dela.

- Kasu batzuetan (obra txikiak...) ez da hirigintza lizentzia aurkeztu beharrik, erantzukizuneko adierazpena baizik.
  - Kontzejuetan, hirigintzako lizentziak emanen badira, ezinbestekoa da kontzejua dagoen udalerrriak derrigorrezko txosten loteslea ematea.
- **Jarduera sailkatuetarako lizentziak.**
- Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legeak aldaketa esanguratsuak egin ditu arlo horretan. Jarduera horiei honako hauetakoren bat egin beharko zaie: ingurumen-ebaluazio estrategikoa, ingurumen-baimen integratua, ingurumen-baimen bateratua, ingurumen-ukipenen ebaluazioa eta jarduera sailkaturako lizentzia.
  - Arlo horretan, toki entitateek jarduera sailkatuaren lizentzia eman beharko dute, soilik, ingurumenean eragin txikiena duten jardueretarako (aipatu Foru Legearen 3. eranskinean jasota daude), baldin eta ez badaude lizentziaz salbuetsirik, Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko presako neurriei buruzko 12/2012 Legean ezarritakoarekin bat.
  - Ez bada ebazpenik ematen lau hilabeteko epean eskaera eta dokumentazio guztia udaletxean aurkeztu zirenetik, ulertuko da eskaera ezesten dela.

## Zerbitzu publikoak

### ■ **Kontzeptua**

- Tokiko zerbitzu publikoak dira toki entitateen eskumeneko xedeak lortzea helburu duten zerbitzuak.
- Zerbitzu horiek emateko kudeaketa modu ezberdinak daude. Toki entitateak hautatu beharko du nola kudeatu zerbitzuaren ezaugarriak eta berezitasunak kontuan hartuta.

### ■ **Kudeaketa motak**

- Zeharkako kudeaketa motak:
  - Toki entitateak berak kudeatzea.
  - Toki erakunde autonomoaren bidez.
  - Tokiko enpresa-entitate publikoaren bidez.
  - Merkataritza-sozietatearen bidez, kapital soziala titulartasun publikokoa duena, eta nagusiki toki entitatearena berarena edo haren erakunde publiko batena.
- Zeharkako kudeaketa motak:
  - Emakida.
  - Kudeaketa interesatua.
  - Itun bidez.
  - Errentamendu bidez.
  - Merkataritza sozietate edo sozietate kooperatibo bidez, haren kapital sozialaren zati bat baino ez badagokio toki entitateari.
  - Kontratuei buruzko foru legedian aurreikusitako beste batzuk.

### Toki entitateak berak kudeatzea

- \* Zerbitzua zuzenean ematen da, toki entitatea ez den inolako erakunderik sortu gabe.
- \* Bi aukera daude:
  - Toki entitateak bere ohiko organoak erabiltzea.
  - Nortasun juridikorik gabeko organo berezia eratzea toki entitatearen egitura organikoaren barnean zerbitzua betetze aldera.

### Toki erakunde autonomoaren bidez

- \* Toki entitateak horretarako propio sortutako entitate publiko berri baten bidez emanen du zerbitzua.
- \* Erakunde autonomoak bere estatutuak izanen ditu, toki entitateak onetsitakoak, zeinek honako hauek jaso beharko baitituzte:
  - Erakunde autonomoaren esku paratuko d(ir)en zerbitzu publikoa(k)
  - Zerbitzu publikoari lotutako ondasunak eta baliabideak.
  - Antolamendu orokorra eta funtzionamendurako araubidea.
  - Gobernu-organok eta zuzendaritzako pertsonala izendatzeko sistema.
  - Toki entitateari erakunde autonomoaren inguruan gordeko zaizkion tutoretza-eginkizunak.

### Tokiko enpresa-entitate publikoaren bidez.

- \* Berez, erakunde autonomoa da, forma berezi hori hartzen duena helburu duenean ordaina ekartzen dioten ondasunak edo zerbitzuak ematea. Funtsean, erakunde autonomoak ez bezala, zuzenbide pribatuak gobernatzen du oro har.

### Tokiko merkataritza-sozietatea

- \* Toki entitateak sozietate anonimoa edo erantzukizun mugatuko sozietatea eratuko du, toki entitatearen kapital soilekoa, eta horrek emanen du eman beharreko zerbitzua. Udalbatzak Batzar Nagusiaren eginkizunak beteko ditu.
- \* Eratze-eskrituran honako hauek jaso behar dira:

- Toki entitateak paratutako kapitala.
  - Administrazio-kontseilua nola osatuko den.
  - Kapital sozialaren izenean botoa eman dezaketenak.
- \* Merkataritza-sozietatea zuzenbide zibileko eta merkataritza-zuzenbideko arauak zuzenduko dute.

#### Emakida

- \* Toki entitateak partikular baten esku uzten du zerbitzu publikoa. Partikular hori norbanako enpresaria nahiz merkataritza-sozietatea izan daiteke. Emakidahartzaileak bere arriskupean eta menturapean kudeatuko du.

#### Kudeaketa interesatua

- \* Toki entitateak partikular baten eskuetan uzten du zerbitzua. Alabaina, kasu horretan, toki entitateak kudeatzailearekin parte hartzen du ustiapenaren emaitzan, kontratuan ezarritako proportzioan.

#### Errentamendu bidez

- \* Toki entitateak urteko kanon finko batean alokatuko ditu bere jabetzapeko instalazioak, zerbitzua emateko nahitaezkoak direnak. Errentari partikularrak erabiltzaileek zerbitzuagatik ordaintzen dituzten tarifak jasoko ditu. Bere gain hartuko ditu ustiapen-gastuak eta zerbitzuak behar bezalako funtzionamendua izateko egin beharreko konponketak.

#### Itun bidez

- \* Kasu horretan, toki entitateak dagoeneko zerbitzu hori ematen duen beste erakunde publiko nahiz enpresaburu partikular batekin ituntzen du zerbitzua ematea. Ordainetan, toki entitatea derrigortuta dago aldez aurretik zehaztuko den eta aldatuko ez den goren mugako prezioa ordaintzera zerbitzu osoagatik, zerbitzu-unitateengatik nahiz egintzengatik.

#### Sozietate mistoa

- \* Kudeaketa-modu horrek eskatzen du merkataritza-sozietate anonimoa sortzea, erantzukizun mugatukoa nahiz kooperatiboa. Horretan, toki entitateak kapital

sozialaren zati bat baino ez du paratuko; hala ere, ekarpen hori ez da sekula herena baino gutxiago izanen.

- \* Sozietatearen estatutuek honako hauek jaso behar dituzte:
  - Enpresa mistoaren izaera, zerbitzu publiko bat kudeatzen duen erakundea den neurrian.
  - Toki entitateari gordetako eskumenak.
  - Sozietatea desagitera eramanen duten arrazoiak.

### Sustapenaren jarduera

- Erakunde publikoekin edo pribatuekin eta partikularrekin lankidetzan aritzean datza herritarren interesak kudeatzeko, laguntza ekonomikoak emanez zerbitzuak emateko edo jarduerak gauzatzeko, udal eskumenean laguntzeko edo hura ordezteko.
- Laguntza horiek emateko, publizitatearen eta berdintasunaren printzipioak bete behar dira, eta haiek justifikatzen dituzten helburuak eta baliabideak egokitu.
- Ezin dute inola ere legean aurreikusita ez dagoen salbuespen fiskalik ekarri.
- Toki entitateek emandako dirulaguntzek azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritakoari men egin beharko diete bai eta lege hori garatzen duen araudiari.



# TOKI ENTITATEEN ONDASUNAK

---

## Sailkapena

- Nafarroako toki entitateen ondasunak honela sailkatzen dira: ondare-ondasunak, herri-lurretako ondasunak eta jabari publikoko ondasunak.

## Toki entitateen eskumenak erakunde horien ondasunekiko

- **Ikertzeko eskubidea:** toki entitateek gaitasuna dute ustez haienak diren ondasunak eta eskubideak ikertzeko eta ikuskatzeko, ondasun eta eskubide horien titulartasuna zehazte aldera.
- **Mugarritzeko eskubidea:** toki entitateek eskumena daukate beren ondareko higiezinak mugarritzeko, mugak zehaztugabeak badira, edo modu ezegokian okupatu izan direlako susmoak badaude.
- **Ofizios berreskuratzeko eskubidea:** Nafarroako toki entitateek gaitasuna dute beren kabuz, justizia-auzitegietara jo beharrik izan gabe, bidegabeki galdutako ondasunak berreskuratzeko. Eskubide hori edozein unetan gauza daiteke jabetza publikoko ondasunekiko edo ondasun komunalekiko eta eskubideekiko. Ondare-ondasunak administrazio-bidean berreskuratzeko epea urtebetekoa da, usurpazioa gertatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- **Administrazio bidezko utzarazpena:** toki entitateek eskumena daukate, administrazio-bidea baliatuta, jabetza publikoko edo herri-lurretako ondasunak erabiltzen edo okupatzen dituztenak uztaratzeko, behin horretarako eskubidea bukatuta, Ondasunei buruzko Erregelamenduan ezarritako prozeduraren arabera.

## Jabari publikoko ondasunak

### ■ **Kontzeptua**

- Jabari publikoko ondasunak dira erabilera edo zerbitzu publikoetara bideratutakoak; esate baterako, udaletxea, karridak edo udalaren kirol instalazioak.

### ■ **Jabari publikoko ondasunen ezaugarriak**

- Besterenezinak dira: alegia, ez daitezke saldu, ondasunari ematen zaion erabilera edo zerbitzu publikotik ondasun horiek desafektatzen ez badira.
- Preskribaezinak dira: alegia, inork ez dezake ondasun horien jabetza betirako eskuratu.
- Enbargaezinak dira.
- Ez dute zergarik ordaintzen.

### ■ **Jabari publikoko ondasunak erabiltzea**

- Erabilera orokorra.- Jabari publikoko ondasunen berezko xedea da herritar guztiek ondasun horiek era berean eta orokorrean erabiltzea, ondasun horien izaeraren eta xedearen arabera erabili ere. Toki entitateak erregelamenduak onar ditzake erabilera orokorra arautzeko.
- Erabilera berezia.- Halako erabilera ematen da arrisku-egoera bereziak, erabilera intentsitatea nahiz antzekorik gertatzen direnean. Halako erabilerek eskatzen dute udalaren lizentzia aldeztatik eskuratzea.
- Erabilera pribatiboa.- Erabilera pribatiboarekin, zenbait pertsonak ondasun horiek erabiltzeak beste pertsona batzuk erabilera horretatik kanpo uzten ditu. Erabilera horrek jabari publikoaren kontzesio-egintza eskatzen du. Erabilerak obra edo instalazio iraunkorrak eskatzen ez baditu, nahikoa izanen da lizentzia.
- Ezohiko erabilera.- Erabilera ezohikoa izanen da ondasunaren xede nagusia bat ez datorrenean ondasunari berez dagokion erabilerarekin. Emakida beharrezkoa da.

## Herri-lurretako ondasunak

- ***Kontzeptua***
  - Haien aprobetxamendua eta gozamina bizilagun guztiei dagokie. Jabari publikoko ondasunek duten babes-araubide berbera daukate, eta, hortaz, jabari publikokoak bezala, besterenezinak, preskribaezinak eta enbargaezinak dira, eta ez dute inolako zergarik ordaintzen.
  
- ***Herri-lurretako ondasunen aprobetxamendua***
  - Legeak edo toki entitateak onetsitako ordenantzak gobernatzen du herri-lurretako ondasunen aprobetxamendua. Legeak xehetasunez arautzen du ondokoan aprobetxamendua:
    - Laborantzako herri-lurrak.
    - Herri larreak.
    - Etxeetarako egurra eta zuretarako eta egurretarako aprobetxamenduak.
  - Herri-lurrak hobetzea.

## Ondare ondasunak

- ***Kontzeptua***
  - Ondare ondasunak dira jabari publikoaren edo herri-lurraren izaera ez duten toki entitateen titulartasunekoak.
  - Ondasun horiek saltzeko eta besterentzeko, oro har, enkante bidezko prozedura erabiltzen da.

## TOKI KONTRATAZIOA

---

- Toki kontratazioaren arloan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aplikatzen da.
- Lege hori Nafarroako toki entitateei eta horien erakunde autonomoei aplikatzen zaie, ezertan galarazi gabe gai horren inguruan Toki Administrazioari buruzko Foru Legean jasotzen diren berezitasunak.
- Berezitasun horiek Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen VI. Tituluan daude jasota, zehazki, 224. artikulutik 232.era.
- Araudi horrek aldaketa handia ekarri du lehenago indarrean zegoen araudiaren aldean, Nafarroako kontratuei buruzko araudia Europako eszenatoki berrira egokitu behar izan baita (2014/23/EB Zuzentaraua, emakida kontratuak esleitzeko, eta 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa).

Erregulazio horretan hainbat alderdi jaso dira; besteak beste, kontratu publiko motak, esleitzeko prozedurak eta moduak, publizitate-arauak, kontratazio-organoak, etab.

### Kontratu motak

- Foru Legeak kontratu publiko mota hauek zehazten ditu:
  - **Obren kontratua.**
  - **Hornidura kontratua.**
  - **Zerbitzuen kontratua.**
  - **Obren kontzesioa.**
  - **Zerbitzuen kontzesioa.**

Kontratu mistoak ere arautzen dira, mota desberdinetako kontratuen baldintzak biltzen dituztenak, alegia. Foru Legeak ezartzen du zer arau bete behar den esleipenean. Nolanahi ere, kontratu mistoa egiteko, haren baldintzek lotura izan behar dute elkarrekin, eta batasun funtzionaltzat hartu behar dira, premia jakin bat asetzeko.

Orobat, araubide bereziko kontratuak ere arautzen dira:

- Kontratuak enplegurako zentro bereziei (irabazi asmorik gabeak edo ekimen sozialekoak) edo gizarteratzeko enpresei erreserbatu beharra (gutxienez, aurreko ekitaldian esleitutako kontratuen zenbatekoaren %6).
- Arau bereziak osasun, gizarte, kultura eta hezkuntza arloetako kontratuatarako, esleipen-hartzaileen baldintzei buruzkoak.
- Aurreko ekitaldian osasun, gizarte, kultura eta hezkuntza arloetan esleitutako kontratuen zenbatekoaren %1 erreserbatzea irabazi asmorik gabeko entitateei.

## Kontratatzeko eskumena

### ■ **A) Udalerrietan**

- Alkate-udalburuari dagokio:

Kontratazio eta lagapen mota guztiak, baldin eta, batetik, zenbatekoak gainditzen ez badu aurrekontu arrunteko baliabideen %10, edo, kasu guztietan, sei milioi euro (urte batetik gorakoak barne), horien iraupena lau urtetik gorakoa ez denean, eta, bestetik, metatutako zenbatekoak gainditzen ez badu aipatutako portzentajea (lehen ekitaldiko aurrekontuaren baliabide arruntei dagokienez), ezta aipatutako zenbatekoak ere.

- Gainerako kasuak Osoko Bilkurari dagozkio.

### ■ **B) Kontzejuetan**

- Dagokoinari esleituiko zaio, usadioen eta ohituren arabera. Halakorik ezean:

- Kontzejuburuari dagokio:

Urteko kontratazioak egitea, horien zenbatekoak aurrekontuaren sarrera arrunten %10 gainditzen ez badu. Halaber, hainbat urtetarako kontratazioak egitea, gastua ez bada lau ekitalditan baino gehiagotan aplikatzen, eta urte guztietako zenbateko metatuak arestian aipatutako portzentajea gainditzen ez badu.

- Gainerako kasuak, batzordeari edo kontzeju irekiari.

## Kontratua prestatzeari eta esleitzeari buruzko arauak

- **Aldez aurretik aurrekontuko diru-izendapena izatea. Erabateko ezdeustasuna ekartzen du krediturik ez izateak edo behar adina ez izateak** (presako prozeduretan izan ezik).
- Kontratua lotetan banatzea. Ekimen sozialeko enplegurako zentro bereziei edo gizarteratzeko enpresei erreserbatu behar zaizkie lote horietako batzuk. Ezin bada lotetan banatu edo erreserba egiten ez bada, erabakia justifikatu beharko da.
- Kontratua **espediente** bidez prestatzea. **Zenbateko txikiko kontratuak salbu.** Kontratazio espedienteak **tramitazio arruntekoak, tramitazio aurreratukoak eta presako tramitaziokoak** izan daitezke. Kontratazio espedienteak honako hau izanen du: premiaren txostena; kontratazioa arautzen duten pleguak, alderdi juridikoak, administratiboak, ekonomikoak eta teknikoak bilduko dituztenak; kredituaren erreserbaren dokumentua; txosten juridikoa eta esku-hartzearen fiskalizazioa.
- Kontratazio organoak **gastua onestea** (prozedura jakin batzuetan izan ezik).
- Kontratua **esleitzea**.
- Kontratua **formalizatzea** administrazio-agiri batean.

## Esleitzeko prozedurak

Prozedura motak:

- **Prozedura irekia.** Enpresa guztiek aurkez dezakete eskaintza bat.
- **Prozedura murriztua.** Soilik administrazioak espresuki aukeratutako enpresek, aldez aurretik eskaera eginda, aurkezten ahal dituzte eskaintzak.
- **Prozedura negoziatua.** Kontratazio organoak enpresa edo profesional batekin edo batzuekin kontsultatzen eta negoziatzen ditu kontratuaren baldintzak, eta arrazoiak emanez aukeratzen du eskaintza.

Prozedura hori erabiltzen da botere esleitzailleek modurik ez dutenean beren beharrak asetuko dituzten baliabide egokiak zehazteko edo merkatuak eskaintzen dituen soluzio teknikoak, finantzarioak edo juridikoak ebaluatzeko.

- **Prozedura negoziatua lizitazioaren deialdirik gabe.** Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean aurreikusitako kasuetan baino ezin da erabili.

- **Lehia-elkarrizketa.** Prozedura horren bitartez, parte-hartzea eskatu duten eta aukeratuak izan diren enprekin bideratuko du elkarrizketa administrazioak.

Aplikagarria da soilik konplexuak diren kontratazioetan, konplexutasun horren ondorioz ezinezkoa denean lizitazio aurretik kontratuaren baldintzak definitzea.

- **Berrikuntzarako elkarte.** Edozein enpresak edo profesionalak aurkez dezake parte hartzeko eskaera bat. Lankidetzan hitzarmen bat egiten da kontratazio organoaren eta enpresa edo profesional bat edo batzuen artean, ikerketa eta garapen jarduerak egiteko obra, zerbitzu eta produktu berritzaileei dagokienez, eta gero horiek eskuratzeko, merkatuan eskura dauden soluzioek ez dituztenean asetzen kontratazio organoaren beharrak.

- **Proiektuen lehiaketa.** Kontratazio organoak planak edo proiektu bereziak prestatzeko erabiliko du prozedura hori, batez ere lurraldearen antolamenduan, hirigintzan, arkitekturan, ingeniartzan eta datuen prozeduran. Parte-hartzaileengandik independente diren pertsona fisikoez osatutako epaimahai batek parte hartzen du.

- **Prozedura erraztua.** 60.000 eurotik beherako balio estimatua duten zerbitzuen eta horniduren kontratuetan erabil daiteke, baita 200.000 eurotik beherako balio estimatua duten obra kontratuetan ere. Gutxienez bost enpresa edo profesional gaituri eskatuko zaie eskaintza. Pleguetan kontrakoa adierazi ezean, ez da nahitaezkoa kaudimena frogatzea. Kontratazio organoak ez baditu gutxienez bi eskaintza eskuratzen, beste bat lortzen saiatu behar du. Ez badu lortzen edo ulertzen badu ezinezkoa dela beste eskaintza bat egitea, arrazoiak eman beharko ditu.

- **Zenbateko txikiko araubide berezia.** 15.000 eurotik beherako balio estimatua duten zerbitzuen eta horniduren kontratuetan erabil daiteke, baita 40.000 eurotik beherako balio estimatua duten obra kontratuetan ere. Tramitaziorako, kreditua erreserbatu baino ez da behar, aurrekontuei eta kontabilitateari buruzko araudiarekin bat beharrezkoa bada, eta faktura aurkeztu.

Horniduren eta segidako zerbitzu-emateen kasuan, prozedura honen erabilera posible izanen da, bakarrik, baldin balio zenbatetsia, hurrengo 48

hilabeteetarako aurreikusitako gastua aintzat harturik, ez bada handiagoa aurretik adierazitako atalaseak baino.

### Esleitzeko irizpideak

- **Kalitate-prezio erlazio onena** duen eskaintzari esleitzen zaizkio kontratuak. Erabiltzen diren irizpideak pleguetan zehaztu behar dira, eta baldintza hauek bete:
  - a. Lotura izanen dute kontratuaren xedearekin.
  - b. Modu zehatzean eta objektiboan adieraziko dira.
  - c. Bermatuko dute benetako lehia ebaluatuko direla eskaintzak.
- Modu hauetako edozein erabiliz zehaztuko da zein den **kalitate-prezio erlazio onena** duen eskaintza:
  - a. **Kostu-eraginkortasun erlazio onenarekin** lotutako irizpideak erabiliz soilik, hala nola prezioa, bizitza zikloaren kostua edo beste parametro bat.
  - b. **Kostu-eraginkortasun erlazioarekin eta irizpide kualitatiboekin** batera lotutako irizpideak erabiliz, kalitate-prezio onena duen eskaintza identifikatu ahal izateko.
  - c. **Irizpide kualitatiboak** soilik erabiliz. Halakoetan, kostuaren faktorea prezio finko bat izanen da.
- Esleitzeko **irizpide bat baino gehiago** erabiltzen denean, irizpideen arteko ponderazioa zehaztuko duten **formula objektiboen bidez** kalkulatu beharko da puntuazioaren **%50** gutxienez.
- Salbuespenetan baino ez dira **hobekuntzak** erabiliko esleipen irizpide gisa, eta ezin dute puntu guztien %10etik gorako ponderazioa izan.
- **Irizpide sozialak erantsi beharra.** Gutxienez puntu guztien %10eko ponderazioa izan behar dute.



## Lizitazioen publizitatea

- Interneteko Nafarroako Kontratazioen Ataria da baliabide ofiziala lizitazioen publiziterako.
- **Europako atalaseko balioa edo hortik gorakoa duten kontratuak:** derrigorrezkoa izanen da Europako Erkidegoko aldizkari ofizialean argitaratzea. Hauek dira Europako atalaseak egun:
  - 215.000 euro hornidura eta zerbitzuen kontratuetan.
  - 5.382.000 euro obren kontratuetan eta obra publikoen zein zerbitzuen kontzesioetan.
- **Europako atalasetik beherako kontratuak.** Kasu horretan, entitatearen iragarki-oholean iragartzeaz gain, Nafarroako Kontratazio Atarian ere argitaratu behar dira, salbu eta lizitazioaren deialdirik gabe negoziatutako prozedurak, prozedura erraztuak eta zenbateko txikikoak.
- **Nafarroako lizitazio elektronikoaren plataforma** da baliabide ofiziala parte hartzeko eskaintzak eta eskaerak aurkezteko. Prozedura guztietan erabili behar da, salbu eta zenbateko txikiko kontratuen araubide bereziko edo beren izaeragatik lizitatzailerik bakar bat egon daitekeeneko kasuetan. Horrek esan nahi du plataforma horren bidez eginen direla lizitazio tramite guztiak.

## Toki entitateen ahalmenak kontratazio publikoan

- **Zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolerako ahalmena.** Horrek esan nahi du administrazioak eskumena daukala kontratistak derrigor bete beharreko instrukzioak eta aginduak emateko, baita kontratistari zehapenak ezartzeko ere, administrazioak emandako agindu horiek betetzen ez baditu.
- **Kontratua aldebakarrez interpretatzeko ahalmena.** Toki entitateak aldebakarrez eta modu exekutiboan ebatz ditzake kontratuak iraun bitartean sor daitezkeen gorabehera guztiak, lana edo ematen ari den zerbitzu publikoa ez dela geldituko bermatzeko. Horrek ez du esan nahi toki entitateek libreki erabaki dezakeenik. Kontratazioari buruzko arauan ezarritakoari lotu behar zaio.
- **Kontratua aldatzeko ahalmena.** Toki entitateak zilegi du kontratuaren xedea aldatzea. Baina arrazoi honengatik baino ezin da aldatu: interes publikoko

arrazoiak, funtsezko edukia ukitu gabe, kausa objektiboari erantzuteko behar-beharrezko aldaketak eginez soilik.

Aldaketa guztiekin metatutako zenbatekoak ezin du kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren %50 gainditu.

### Kontratua iraingitzea

- Honako arrazoi hauengatik iraingi daiteke kontratua:
  - Amaitu delako.
  - Ebatzi delako:
    - Kontratataren pertsonalitatea edo gaitasuna galdu edo murriztu delako.
    - Bi aldeek erabakita.
    - Kontratatik kontratua ez betetzeagatik.
    - Administrazioak ez betetzeagatik.
    - Exekuzioaren baldintza bereziak ez betetzea.

### Erreklamazio bereziak kontratazio publikoan

- Errekurtso administratibo berezia da, doakoa, aukerakoa eta ordezkoa eta telematikoa.
- Administrazio erakunde independente batek ebatzen du: Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegia.
- Ezaugarri hauek ditu:
  - a. Eremu jakin batera dago mugaturik (lizitazioa, esleipena, kontratuetako aldaketak, entitate instrumentalei eginiko enkarguak eta kontzesioen erreskatea).
  - b. Arrazoiekin funtsatu behar da.
- Modu telematikoan baino ezin da aurkeztu erreklamazioa, Nafarroako Kontratazioaren Atarian aurreikusita dagoen aplikazioarekin.

- Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio berezi hori ez da kontrol bakarreko sistema bat. Era berean, errekurtsio arrunten sistema eta gora jotzeko errekurtsioa daude Nafarroako Administrazio Auzitegian.

# TOKI OGASUNAK

---

## Aplikatu beharreko araudia

Nafarroako toki ogasunak honako araudi hauek erregulatzen dituzte:

- ***Araudi orokorra***
  - [2/1995 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.](#)
  - Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako 4/2019 Foru Legea.
  
- ***Aurrekontuen egonkortasunari buruzko araudia***
  - [2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren jasangarritasunari buruzkoa.](#)
  
- ***Tributuei buruzko araudia***
  - [12/2006 Foru Legea, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Zergen erregistroa eta Katastroen erregistroa arautzen dituen.](#)
  - [7/1996 Foru Legea](#), Jarduera Ekonomikoetarako edo Lizentzia Fiskalerako tarifak eta zergak onesten dituen.
  - [13/2000 Foru Lege Orokorra, abenduaren 14koa, Tributuei buruzkoa.](#)  
[177/2001 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Erkidegoko Zerga Bilketarako Erregelamendua onesten duena.](#)
  
- ***Tributuetan parte hartzeko araudia***
  - 6/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa.
  - [7/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa](#), ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa.
  - [8/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Toki Inbertsioen Plana arautzen duena.](#)

- **Aurrekontua eta kontabilitatea kudeatzeko araudia**
  - 1998ko [270](#), [272](#) eta [273](#) Foru Dekretuak eta [234/2015 Foru Dekretua](#). Horien bidez, aurrekontua eta tokiko kontabilitate publikoa kudeatzen dituen 2/1995 Legea garatzen da.

### Toki entitateen ekonomia- eta aurrekontu- kudeaketa

Toki entitateak toki entitate publikoak dira eta haien jarduera ekonomikoa aurrekontu lotesle baten mende dago, gastuetan mugatzailea dena, eta urtero onetsi behar da. Hortaz, jarduera ekonomikoa aurrekontua kudeatzearekin, aldatzearekin, exekutatzerekin eta likidatzearekin lotua dago. Eta udalbatzako organoek horren inguruan hartzen dituzten erabakien mende dago.

Egoera askotan, erabaki horiek kontu-hartzaitzako txostenak beharko dituzte. Horretaz gain, kontu-hartzaitzak erabakien kontrola eraman eta kontabilitatearen burutza bere gain hartuko du eta aurrekontuaren likidazioa eta kontu orokorra egiteko ardura ere izango du.

Horrela, toki entitate guztietan barne kontrolaren funtzioa gauzatzen da, funtzio publikoa dena, hots, funtzionario bati dagokiona, kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuen kudeaketa egiteko. Barne kontrolaren ardura duten langile funtzionarioak Nafarroako Gobernuak gaitu behar ditu eta plantilla organikoan halako lanpostu berezirik ez dagoenean, idazkariak hartuko ditu funtzio horiek bere gain.

Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren kontrolak eta fiskalizazioak bi jarduera-esparru barne hartzen ditu: batetik, kontu-hartzaitzako funtzioa, orokortua dagoena eta diru-sarreraren eta gastuen eta aurrekontua kudeatzeko erabakiak hartzeko eskaturiko txostenen aurretiatzeko kontrola egiten duena. Eta bestetik, finantza- eta eraginkortasun-kontrola, ondoren egiten dena jarduera ekonomikoen eraginkortasuna, efizientzia eta legezotasuna aztertzeko. Bigarren funtzio hori ez da apenas gauzatzen Nafarroako toki entitateetan.

Barne kontrola osatzeko kanpo kontrola dago kontuen auzitegiek egiten dutena eta, Nafarroaren kasuan, [Kontuen Ganberak](#) egiten duena. Ganberak tamaina handiko toki entitate guztiak behin eta berriz fiskalizatzen ditu eta noizean behin gainontzekoak ere bai. Horretaz gain, [Toki Sektore Publikoaren Urteko Txostena](#) ere egiten du sektorearen egoera era agregatuan aztertuz eta ondorioak eta gomendioak emanez.

Txostenak udalerrri bakoitzaren ekonomia eta finantza adierazle nagusiak biltzen dituen fitxa dakar.

### Toki entitateen baliabideak

- Konstituzioaren 142. artikulua ezartzen duenez, toki ogasunek behar adina baliabide izan behar dituzte legeak kasuan kasuko udalbatzei esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko. Horretarako, beren tributuez baliatuko dira batik bat, baina Estatuaren tributuetan eta autonomia erkidegoenetan ere parte hartuko dute.
- Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Legeak ezartzen du, 259. artikuluan, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaiela, eta hori Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Lege batean arautuko da, Nafarroako toki araubidearen berezko gai moduan (Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko Legearen 18.2 artikulua).
- Nafarroako toki ogasunak beren tributuez baliatuko dira, eta Foru Komunitateko eta Estatuaren tributuetan parte hartuko dute, baita Toki Ogasunei buruzko Foru Legean aurreikusitako beste baliabide guztietan ere.
- **Sailkapena**
  - Toki Ogasunei buruzko Foru Legean jasotako sailkapenaren arabera (2/95 Foru Legearen 5. art.), honako hauek dira toki entitateen ogasunaren baliabideak:
    - A. Tributu izaera ez duten baliabideak.
      - a. Berezko edo zuzenbide pribatuko diru-sarrerak.
      - b. Herri-lurretako aprobetxamenduak.
      - c. Prezio publikoak.
      - d. Urbanizazio kuotak.
      - e. Isunak.
      - f. Beste prestazio batzuk.
      - g. Zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak.

- B. Tributuak.
  - a. Tasak.
  - b. Kontribuzio bereziak.
  - c. Zergak.
- C. Estatuko tributuetan parte hartzea.
- D. Nafarroako tributuetan parte hartzea.
- E. Dirulaguntzak.
- F. Kreditu eragiketak.

A) a) atalean adierazitako diru-sarrerak zuzenbide pribatuko diru-sarreratzat jotzen dira. Gainerako guztiek izaera publikoa dute, eta Nafarroako toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoak dituen eskumen berdinak izanen dituzte horien gainean; besteak beste, horiek kobratzeko premiamendu-prozedura erabiltzen ahalko dute.

- ***Toki entitateei baliabideak esleitzea***
  - **Udalerriak:** aurreko sailkapenean zerrendatutako baliabide guztiek osatzen dute udalerrien ogasuna, Toki Ogasunei buruzko Foru Legean jasotako berezitasunekin.
  - **Kontzejuak:** udalerriek tributu izaeraz kanpo dituzten baliabide berak dituzte kontzejuak, urbanizazio kuotak izan ezik. Gainera, tasak eta kontribuzio bereziak dira ordainarazten ahal dituzten tributu bakarrak.
  - **Mankomunitateak eta planifikazio orokorreko mankomunitateak.** Baliabide hauek izanen dituzte: zuzenbide pribatuko diru-sarrerak; dirulaguntzak eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk; tasak zerbitzuak emateagatik edo bere eskumeneko jarduerak egiteagatik; kontribuzio bereziak; prezio publikoak; kreditu-operazioetatik eskuratutakoa; isunak eta, zer entitate diren mankomunitateen parte, horien ekarpenak.
  - **Eskualdeak:** Nafarroako eskualdeek udalerrien baliabide ekonomiko berak izanen dituzte, salbuespen hauekin:
    - Eskualdeei zer eskumen dauden esleituta, horiei egon behar dute loturik tasen eta kontribuzio berezien bidezko tributu baliabideak.

- Eskualde bakoitzak izanen ditu, halaber, sorreraren foru legeak berak esleitzen dizkion baliabide ekonomiko guztiak.
  - Legedi sektorialak zehaztu beharko du zer baliabide ekonomiko den beharrezko modu zuzenean esleitzen zaizkien eskumenak erabiltzeko.
  - Eskualdeek bere gain hartzen dituztenean udalerrriak ematen ari ziren zerbitzuak, hitzartzen diren baliabide ekonomikoak esleitu beharko dizkiete udalerriek eskualdeei, baliabideen finantzazioan laguntzeko.
- ***Tributu izaera ez duten baliabideak***
    - **Berezko edo eskubide pribatuko irabaziak:** norberaren ondaretik eratortzen den edozein etekin edo produktu, baita herentzia, legatu edo dohaintza gisa eskuratutakoak ere. Ez dira inola ere sailkapen honen barruan sartuko toki jabari publikotik edo ondasun publikoetatik datozenak.
    - **Herri-lurretako aprobetxamenduak:** herri-lurraren ondarearen aprobetxamendutik datozenak.
    - **Prezio publikoak:** diruzko ordainak, horiek jasotzen dituen toki entitatearen eskumenerako zerbitzu bat emateagatik edo jarduera administratiboak egiteagatik jasotakoak, betiere administratuek borondatez eskatu edo jasotzen badituzte eta sektore pribatuak gauzatzen baditu, indarrean dagoen legediak sektore publikorako erreserbatu ala ez. Prezio publikoen zenbatekoak bere gain hartu behar du egindako zerbitzuaren edo jardueraren kostua, gutxienez. Udalbatzako Osoko Bilkurari dagokio prezio publikoak ezarri edo aldatzea, ezertan galarazi gabe gobernu batzordearen esku utz daitekeela eskumen hori.
    - **Urbanizazio kuotak:** hirigintzako exekuzio-unitateen barnean dauden lursailen jabeek toki entitateei abonatu beharrekoak, egindako urbanizazioaren kostuak ordaintzeko, jarduteko sistema lankidetzaren denean.
    - **Isunak:** gobernu-isunak (saioretara ez bertaratzea) eta zigorrak, udaleko eta tokiko ordenantzak eta beste legezko edo araubidezko agindu **administratiboak** hausteagatik ezarritakoak. Zergekin lotutako arau-hausteengatik ezarritako zigorrak ez dira atal honetan sartzen, horien jatorrizko zerga-araudiaren izaera berdina izango baitute.



- **Tributu izaera ez duten ondare prestazio publikoak:** Kontraprestazio ekonomiko horiek jasotzen dira tasa bati lotutako zerbitzu publikoak emateagatik, hura modu zuzenean egiten denean pertsonifikazio pribatuaren bidez edo zeharkako kudeaketaren bidez. Ordenantza bidez ezarri behar dira.
- **Beste prestazio batzuk:** horien artean daude auzo- eta landa-bideak eraiki, mantendu eta hobetzeko langile- eta garraio-zerbitzuak (auzolana), eta orokorrean, horien eskumenekoak diren obrak egiteari dagozkionak.

- ***Tributu izaera duten baliabideak***

- **Tasak:** diruzko ordainak, ematen direnak tokiko jabari publikoa modu pribatiboan erabiltzeagatik edo aprobetxatzeagatik eta toki entitatearen eskumeneko zuzenbide publikoko zerbitzu bat emateagatik edo jarduera administratibo bat gauzatzeagatik, subjektu pasiboari bereziki lotuta dagoenean edo hari eragin edo mesede egiten dionean eta baldintza hauetako bat ematen denean:
  - a. Administrazioek ez dituztenean zerbitzu horiek borondatez jasotzen edo eskatzen.
  - b. Ez dituztenean sektore pribatuak gauzatzen, indarrean dagoen legediak sektore publikorako erreserbatu ala ez.

Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 100. artikuluan jasota daude tasen zerga-egitatea osatzen duten jarduera eta zerbitzu gehienak.

- **Kontribuzio bereziak:** tributua hauetan, subjektu pasiboak irabaziren bat lortzean edo beraren ondasunen balioa handitzean datza zergapeko egitatea, dagokion toki entitateak obra publikoak egiten dituelako edo tokiko zerbitzu publikoak ezarri edo zabaltzen dituelako.

Kontribuzio bereziak ordainarazteko, kasu bakoitzean hura ezartzeko erabakia hartu beharko da alde zuzenetik. Kontribuzio berezien bidez ordaindu behar diren obrak ezin dira gauzatu harik eta haien agindu zehatza ematen ez den arte. Batera hartu behar dira aginduaren eta ezarpenaren erabakiak.

- **Zergak:** ordainik gabe eskatzen diren tributuek, eta horietan, subjektu pasiboaren kontribuzio-gaitasuna agerian uzten duten negozioetan, egitateetan

edo ekintzetan datza zergapeko egitatea, errenta bat lortu dutelako, ondare baten jabe direlako edo ondasunak eta zerbitzuak eskuratu dituztelako. Honela sailkatzen dira:

➤ **Nahitaezko ordainarazpena:**

- Lurraren gaineko kontribuzioa.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga edo lizentzia zerga.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga edo zirkulazio zerga.
- Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga.
- Hiri-lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga edo gainbalioa.
- Etxebizitza hutsen gaineko zerga.

➤ **Borondatez ordainaraztekoak:**

- Luxuzko gastuen gaineko zerga.

- **Toki zergak:**
- **Lurraren gaineko kontribuzioa:** zerga zuzena eta erreala, ondasun higiezinaren katastroko balioa zergapetzen duena. Ondasun higiezinaren gaineko eskubide hauen titulartasunean datza zergapeko egitatea:
  - a. Ondasun higiezinaren gaineko kontzesio administratiboa, edo horiei dagokien zerbitzu publikoen gainekoa.
  - b. Azalaren eskubide erreala.
  - c. Gozamenerako eskubide erreala.
  - d. Aprobetxamendurako eta gozamenerako benetako eskubidea, herri ondasunen ordainetan.
  - e. Jabego eskubidea.

Urteroko sortzapena du zerga horrek. Zerga-oinarria ondasun higiezinaren katastroko-balioa da, [Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalean](#) ezartzen dena, zeina Nafarroako Gobernuak eta Udalek batera osatu eta kudeatzen baitute. Higiezinak hainbat prozeduraren bidez baloratzen dira, mailaren arabera. Lurra balorazio-txostenen bitartez baloratzen da, eta gutxienez bost urtean behin eguneratu behar dira aipatu txostenak.

Errenta-atalase zehatz batzuk gainditzen ez dituzten familia ugariaren edo familia gurasobakarraren subjektu pasiboentzat zergaren %90erainoko hobaria aplikatzeko aukera ezarri zen joan den legealdian, eta %50eko hobaria energia berriztagarrien aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak txertatzen dituzten eraikuntzen alde. Hobari horiek Ordenantza Fiskala behar dute.

Udalek %0,25 eta %0,5 artean ezartzen ahal dute zerga-tasa eta hori baino zerga zenbateko txikiagoa duten entitateek bost urteko epea izanen dute tasa igotzeko ezarritako gutxienez hertzeko, hots, %0,25era. Epe hori 2027an amaituko da.

- **Jarduera ekonomikoen gaineko zerga edo lizentzia zerga:** tributu zuzena eta erreala, jarduera ekonomikoak zergapetzen dituena. Nafarroako Foru Komunitatean enpresa-jarduerak, jarduera profesionalak edo artistikoak gauzatzean datza zergapeko egitatea, alde batera utzita jarduera horiek lokal zehatz batean gauzatzen diren ala ez eta zergaren tarifetan zehaztuta dauden

ala ez. Araudiak aurreikusten dituen salbuespen subjektiboez gainera, berriki, araudiak zergatik salbuetsi ditu negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 euro baino gutxiagokoa duten subjektu pasiboak. Salbuespen horren ondorioz toki entitateek jasotzen ez dituzten diru-sarrerak Transferentzia Arrunten Funtsean konpentsatuko zaizkie.

Zerga hau [Ekonomia Jardueren Erregistroaren](#) bidez kudeatzen da, zeina Nafarroako Gobernuak kudeatzen baitu eta urtero eguneratzen baita. Zergaren tarifak [7/1996 Foru Legean](#) arautzen dira, eta lege hori tarifen balioa eguneratzen edo jarduera berriak eransten dituzten zerga-neurrien bidez gaurkotzen da.

- **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga edo zirkulazio zerga:** tributu zuzena, bide publikoetan ibil daitezkeen eta halako izaera duten ibilgailuen titulartasuna zergapetzen duena, edozein dela ere ibilgailu mota edo kategoria. Urteroko sortzapena duen arren, kuotak hiruhileko osotan banatu daitezke alta edo baja ematen denean. Udalek kudeatzen dute, Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren informaziotik abiatuta prestatzen den ibilgailuen erregistroaren bidez.

Zergaren tarifak berberak dira udal guztietarako eta aldian-aldian eguneratzen dira foru lege bidez. Salbuespenak daude desgaitasuna duten pertsonen jabegoko ibilgailuentzat eta hobariak emisio gutxiko ibilgailuentzat.

- **Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga:** zeharkako tributua, udalerrri barnean edozein eraikin, instalazio edo obra egitea zergapetzen duena, horiek gauzatzeko obra lizentzia behar denean, baldin eta zerga ezartzen duen udalerriri badagokio lizentzia ematea edo lizentzia ematearen txostena idaztea. Zerga obra hasterakoan sortzen da, lizentzia eduki ala ez, eta zerga-oinarria obren kostu erreala eta efektiboa da. Hortaz, zerga kudeatzeko, behin-behineko likidazio bat ezartzen da, aurrekontuaren gainean kalkulatu dena, eta behin betiko likidazio bat, egindako obraren kostua jada ezaguna denean.
- **Hiri-lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga edo gainbalioa:** tributu zuzena, edozein tituluren bidez jabegoa eskualdatzean edo horien jabegoa mugatzen duen edozein gozamen-eskubide osatzean edo eskualdatzean lursailek izandako balio-igoera zergapetzen duena. Jabegoa edo eskubidea

eskualdatzean sortzen da zerga, eta zerga-oinarria ezartzeko, balorazio-txostenean lursailari ematen zaion balioa hartzen da kontuan.

Zerga horrek zenbait aldaketa izan ditu Konstituzio Auzitegiaren epaien ondorioz. Horrenbestez, ez dira zergapetuta egongo eskualdatzeak zeinetan subjektu pasiboak frogatzen ahal duen ez dela balio-gehikuntzarik egon eskualdatze-balioaren eta lurzorua eskuratze-balioaren arteko diferentziagatik. Era berean, subjektu pasiboak lurzorua katastroko balioaren gainean kalkulaturako zergaz haratago beste zerga-oinarri bat aukeratu ahalko du, eskualdatzean jasandako balio-gehikuntza errealaren gainean kalkulaturakoa alegia.

- **Etxebizitza hutsen gaineko zerga:** nahitaezko zerga horrek [Etxebizitza Hutsen Erregistroan](#) jasota dauden udalerriko etxebizitzak zergapetzen ditu. Erregistro hori Nafarroako Gobernuak prestatzen du. Zerga Lurraren gaineko Kontribuzioaren prozedura berdinekin kudeatzen da eta tasak handitu egiten dira etxebizitza hutsik dagoen denbora igaro ahala.
- **Luxuzko gastuen gaineko zerga:** zeharkako zerga, borondatezko ordainarazpenekoa, ikuskizun publikoetan egindako apustu gurutzatuetan izandako irabaziak, ehiza- eta arrantza-barruti pribatuen aprobetxamendua zergapetzen dituena.
- ***Estatuko tributuetan parte hartzea***
  - Nafarroako udalerriek partaidetza dute Nafarroak ordainarazten ez dituen Estatu zergetan. Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoaren egungo idazketak xedatzen duenaren arabera, zerga horiek dira monopolio fiskalen bidez biltzen direnak, inportazio-eskubideak eta zerga berezietan eta BEZ zergan aitortzen diren inportazio-zergak. Kontzeptu honengatik oso zenbateko txikiak jasotzen dira, Estatuak ia ez baitu tributurik biltzen Nafarroan. Baliabide horren kudeaketa Nafarroako Gobernuak egiten du Toki Administrazioaren alorrean eskumenak dituen Departamentuaren bidez.

- ***Nafarroako foru ogasuneko tributuetan parte hartzea***

- Nafarroako toki entitateek Foru Erkidegoak biltzen dituen zergetan parte harzen dute. Parte-hartze hori 6/2022 Foru Legeak osorik aldatu duen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123 artikuluan arautua dago. Aldaketa berri horren ondoren, parte-hartze Funtsa honako ataletan banatzen da: Transferentzia Arrunten atala, Kapital Transferentzian atala eta JEZ Jarduera-ekonomikoen gaineko Zergaren salbuespena konpentsatzeko urteko ekarpena. Gainera, ekarpen gehigarriak egon ahalko dira eta ez dira finkaturik geldituko. Atal horretan daude, adibidez, Ukrainiako gerraren ondorioz sortutako aparteko energia gastuak konpentsatzeko emandako dirulaguntzak. Tributuetan parte-hartzeari buruzko informazio guztia Toki Administrazioaren alorrean eskumenak dituen [Departamentuaren web-atarian](#) dago.

Funtsaren 2022rako zuzkidura 2/1995 Foru Legearen 123 artikuluan arautzen da. Halaber, eguneraketa-indizeak ere ezartzen dira: transferentzia arruntetarako, aurreko ekitaldiaren KPIa gehi bi punturen arabera izango dena, ekainetik ekainera neurtuta, eta kapital transferentzietarako aldiz, KPIaren arabera izango dena. JEZaren konpentsazioa kalkulatzeko ordea, udalerrri bakoitzeko jardueren erroldatik ekitaldi bakoitzean jasotako diru-bilketaren baliokidea hartuko da kontuan.

Modu horretan definituriko parte-hartzeak izaera egonkorra du eta denboran zehar sistemaren aplikatzea zehaztuko duten foru legeen bidez arautuz joango da. Horrela, Transferentzia Arrunten Funtsa denbora-mugarik gabe arautua dago (7/2022 Foru Legea) eta Kapital Transferentzien Funtsa aldiz, 2022-2028 aldirako arautu da (8/2022 Foru Legea).

6/2022 Legeak xedapen gehigarri bakarra du funtsaren zuzkidura toki entitateei uneoro esleitzen zaizkion eskumenekin lotzen duena. Nafarroako Gobernuari honako betebeharra ezartzen dio: hiru urteren buruan (2025era arte) eskumenak argitzeko proposamen bat eta eskumen berrien finantza nahikotasuna bermatuko duen finantzaketa-eredua igorri behar ditu.

- **Transferentzia arrunten funtsa** finantzaketa orokorreko transferentzia ez finalista bat da, zerga diru-sarreraren osagarria dena, funtzionamenduko ohiko

gastuei aurre egiteko. Lau atal ditu: Funts Orokorra, udalei eta kontzejuei banatzen zaiena gastu-beharrak eta gaitasun fiskalaren araberrako formula baten bidez; Zerbitzuen Funtsa, zerbitzu zehatz batzuk ematen dituzten entitateen artean banatzen dena; Kohesiorako Funtsa, trakzio-izaera handiagoa duten 29 udalerriren artean banatzen dena; eta Montepioen Defiziterako Funtsa, entitate bakoitzari dagokion defizit hori konpentsatzen duena. Horretaz gain, Transferentzia Arrunten Funtsak NUKFrentzako zuzkidura berezi bat du. Toki entitate bakoitzari dagokion [funtsaren zenbatekoak](#) Toki Administrazioaren web-gunean kontsulta daitezke.

Funtsa urtean bi ordainketatan banatuko da otsaileko eta abuztuko lehenengo hamabostaldietan, hurrenez hurren; eta entitate guztiek 2021ean jasotako zuzkidura bermaturik izango dute, gutxienez, urtean %1 eguneratuz.

- **Kapital Transferentzien Funtsa.** Funts honek Toki Inbertsioen Plana (TIP) izeneko finantzatzen du eta gutxienezko zerbitzuak ematearekin loturiko toki entitateen oinarritzko azpiegituretarako eta zuzkiduretarako inbertsioak barne hartzen ditu. Urteko hasierako 30 milioi euroko zuzkidura du 2022an eta KPlaren arabera eguneratuko da urtero. Indarrean dagoen planak bi programazio-aldi ditu (2022tik 2025era eta 2026tik 2028ra) eta hiru atal:
  - a. Inbertsio Programak: tokian tokiko Plan Zuzentzaileetan aurreikusita dauden goi-hornidurako jarduketak eta hondakinen kudeaketa integrala barne hartzen ditu.
  - b. Toki programazioa: toki entitate bakoitzak egindako eskaerak lehenetsiko ditu ur-hornidurako eta -saneamenduko saretarako; kaleak, bideak eta zeharkaleak zolatzeko; askotariko erabilerako eraikinak, kirol, gizarte, kultura zentro gisa nahiz hilerri, udaletxe kontzeju-etxe gisa erabiltzeko eraikinak eta alokatzeko etxebizitzak egitekoak eraikitzeko edo birgaitzeko. Bigarren epealdi batean argiteria publikorako eskaerak ere barne hartzen ditu. Dagoeneko zehaztuta daude 2023-2025 aldiari dagozkion jarduketak eta 2024an egingo da 2026-2028 aldirako eskaerak aurkezteko deialdia.
  - c. Determinazio Libreko Programa: urtero toki entitate bakoitzari esleitzen zaion zuzkidura bat da egoki ikusten duenean edozein inbertsio mota egiteko erabiltzeko.

[TIPari buruzko informazio guztia](#) Toki Administrazioaren web-gunean kontsulta daiteke (araudia, eguneraketak, barne hartutako edo erreserbako jarduketak eta Determinazio Libreko zuzkidurak barne).

#### ■ **Kreditu eragiketak**

- Toki entitateek kreditu eragiketak hitzartu ditzakete edo herri-zorra jaulki dezakete, haien inbertsioak finantzatzeko eta diruzaintzaren behin-behineko defizitak estaltzeko. Era berean, abalak eman ditzakete obrak edo zerbitzuak kontratatzen dituzten edo emakidak ustiatzen dituzten pertsonak edo entitateek hitzartutako kreditu eragiketen gainean, kontratatutako obrak edo zerbitzuak edota ustiatutako emakidak entitatearen onurarako direnean. Abalak eman diezazkiekete, halaber, haien mendeko erakundeek hitzartzen dituzten mailegu-eragiketei. Oro har, aurreko guzti horiek entitatearen osoko bilkuraren adostasuna behar dute.
- Toki entitateen zorpetzeak mugak ditu, Toki Ogasunei buruzko Foru Legean eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko Lege Organikoan ezartzen direnak. Epe luzeko zorpetzeak inbertsioak finantzatzeko soilik aplikatu ahalko dira eta ezingo dira eragiketa berriak hitzartu zor bizia diru-sarrera arrunten %110 baino handiagoa denean.
- Era berean, Foru Erkidegoko Toki Administrazioaren baimena beharko da urtebete baino epe luzeagoko kreditu-eragiketa guztiak hitzartzeko, zor bizia azken ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten %75 baino handiagoa denean edo azken ekitaldiko aurrekontuen likidazioak aurrezte-garbi negatiboa duenean, hau da, funtzionamendurako gastua eta finantzaketa pisua diru-sarrerak baino handiagoak direnean.
- Toki entitateek hitzartzen dituzten kreditu-eragiketek finantza zuhurtasunaren printzipioa bete beharko dute, hau da, Estatuak ezarritako baldintzak gainditu gabe sinatu beharko dira haien zor jaulkipenen kostua oinarritzat harturik. Baldintzak aldian-aldian eguneratzen dira [Altxortegiaren Idazkaritza Nagusiaren ebazpenen bidez](#).

#### ■ **Dirulaguntzak**

**Alderdi orokorrak**



- Zergetan parte-hartzeaz gain, toki entitateek gastu arruntetarako edo kapital gastuetarako dirulaguntzak jasotzen dituzte beste administrazio publikoetatik, oro har, Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik nagusiki bai eta Estatutik eta, orain, Europar Batasunetik ere SEM (Next Generation) suspertze funtsak direla eta. Toki entitateek jasotzen dituzten ezein motatako dirulaguntzak esleitu zireneko xederako erabili beharko dira eta dirulaguntzak eman dituen administrazioaren arabera, dirulaguntza kudeatzeko eta justifikatzeko prozedurak ezberdinak izan daitezke.
- 2020ko maiatzean, EBk finantza-tresna sorta bat ezarri zuen pandemiak eta Ukrainako gerrak eragindako krisia gainditzeko. Tresnarik garrantzitsuena Next Generation (aurrerantzean NGEU) izeneko funtsa da, Europar Batasunaren aurrekontuaren barruan dagoena eta 2021-2027 aldirako 750.000 milioi euro dituen. Funts hori Batasunaren trantsizio ekologikorako eta ekonomia suspertzeko tresna gisa sortu da.
- NGEU Funtsak ministerioek kudeatzen dituzten estatu mailako dirulaguntza deialdien bidez artikulatzen dira edo funts erregionalizatuen bidez. Funts horiek autonomia-erkidegoei helarazten zaizkie zuzeneko gastuaren bidez edo, besteak beste, toki entitateei zuzendutako dirulaguntzen deialdi berrien bidez kudeatu ditzaten.

NGEU funtsak kudeatzeako eta justifikatzeko prozedurak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren [1030/2021](#), [1031/2021](#) eta [55/2023](#) aginduetan arautzen dira. Horien bidez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistema ezarri da, eta onetsi egin dira mugarrien eta helburuen jarraipena egiteko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien aurrekontua eta kontabilitatea betearazteko administrazio publikoek jakinarazi behar duten informazioaren prozedura eta formatua. Halaber, interes gatazkaren arriskuaren azterketa sistematikoa egiteko prozedura ere arautzen da.

NGEU funtsen betebeharrak garrantzitsuenen artean, ezinbestekoa da "Iruzurraren aurkako Plana" izeneko onestea eta gauzatutako gastuen helburuen betetzeari eta justifikazioari buruzko informazioa betetzea Gobernu Zentralak horretarako gaitu duen CoFFEE plataforma izeneko atarian. Horretaz gain, ezinbestekoa izango da Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren MINERVA izeneko plataforman interes-gatazka ekiditea bermatzen duten kontratazio prozedurei buruzko informazioa ematea.

Gainera, Estatuak TRAGSATEC estatuko enpresa publikoari esleitu dio NGEU Europako Funtsekin finantzatutako jarduketak kudeatzeko eta justifikatzeko prozeduren inguruan toki entitateei aholkularitza emateko ardura. Horretarako, ezinbestekoa da [atxikitze protokolo](#) bat izenpetzea eta enpresa horrek Nafarroan duen lurralde-bulegora igortzea. Enpresaren helbidea protokoloan bertan dago. Protokoloa izenpetu ondoren, behar diren izapideen inguruko aholkularitza emango dute.

■ ***Toki entitateek dirulaguntzak ematea***

- Nabarmendu behar da, halaber, toki entitateek beste administrazio batzuei, enpresei edo partikularrei eta abarri ematen dizkieten dirulaguntzak, zeinak Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrari jarraiki arautzen baitira.
- Prozedura ohikoenen artean daude, batetik, prozedura arrunta, hots, **norgehiagoko araubidean** egiten dena. Prozedura horretan, aurkeztutako eskaerak erkatzen dira alde zurretik dirulaguntza arautzen duten oinarrietan eta deialdian ezarritako balorazio irizpideak oinarritzat harturik, eskaera horien artean lehentasunak ezarri ahal izateko eta horren arabera dirulaguntza emateko. Prozedura horretan, ezinbestekoa da oinarri arautzaileak egitea; besteak beste, dirulaguntzaren helburua, onuradunen betekizunak edota dirulaguntza justifikatzeko modua eta epea adierazita. Gainera, gardentasunarekin bat eta dirulaguntzak zabaltzeko, deialdiak eta ebazpenak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera helarazi behar dira, hori baita dirulaguntza publiko guztiei buruzko informazioa jasotzen duen tresna.
- Bestetik, **emakida zuzena** da dirulaguntzak emateko beste prozedura ohikoenetako bat. Kasu horretan, ohikoena da toki entitatearen aurrekontuetan dirulaguntza izendun bat aurreikustea eta, horrekin batera, hitzarmen bat izenpetzea laguntza mota horiei aplikatzen zaizkien baldintzak eta konpromisoak jasota.
- Edozein prozeduratan, diruz lagundutako jarduera egin ondoren, onuradunek egindako gastua justifikatu behar dute. Batetik, dirulaguntzaren xedea bete dela justifikatuko dute, deialdiaren araudiari eta baldintzei jarraiki eta, bestetik, egindako gastuak eta inbertsioak eta jasotako diru-sarrerak. Halaber, garrantzitsua da kontuan hartzea dirulaguntzak eman ahal izateko gastuaren

izaera ezagutu behar dela, eta gastu arruntetarako edo kapital eragiketetarako dirulaguntza den bereizi behar dela.

■ **Aurrekontuen egonkortasuna**

- Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak hiru arau fiskal ezartzen ditu, administrazio publiko guztiek bete beharrekoak, sektore publiko guztiak bete ditzan defizitaren eta zor publikoaren helburu berak. Helburu horiek urtero ezartzen dira administrazioaren maila bakoitzerako [Ministroen Kontseiluaren Erabakien bidez](#) eta Diputatuen Kongresuak berretsita. Hala ere, pandemiaren eta Ukrainako gerraren ondorioak direla eta, Europako Batzordeak Egonkortasunaren eta Hazkundearen Ituna babesteko baldintza orokorra aplikatzea erabaki zuen eta, horrenbestez, helburu horiek betetzeko derrigortasuna [bertan behera](#) gelditu da 2020an, 2021ean, 2022an eta 2023an baina aurreikusia dago 2024an berriro ere aktibatzea.

Legeak, orobat, mugak ezartzen ditu entitate bakoitzaren diruzaintzako gerakina eta superabita erabiltzeko orduan, eta behartzen du informazioa argitara ematera, ministerioak dituen webguneen bidez, ekonomiaren eta aurrekontuen kudeaketari buruz, eta entitatearen kontu-hartzailtzari egotzen dio, zenbaitetan, hori betetzearen erantzukizuna. Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak (242 bis eta ter artikuluek) [zenbait berezitasun](#) ezartzen ditu Nafarroako toki entitateei aurrekontuaren egonkortasuna aplikatzeko orduan; adibidez, diruzaintzako gerakinarekin gastuak finantzatzeagatik egonkortasuneko helburuak, gastu-araua edo zor publikoa betetzen ez diren kasuetan, nahikoa izango da kontu-hartzailtzak udalbatzako osoko bilkurari jakinaraztea eta ez da beharrezkoa izango osoko bilkurak plan ekonomiko-finantzario bat onestea.

- Muga horiek aplikatzeko, SEC Europako Kontuen Sistema erabiltzen da. Eredu horrek aurrekontuen kontabilitatea informazio ekonomikoa homogeneousatzeko arauetara egokitzen du, modurik egon dadin Europar Batasuneko administrazio guztien kontuak konparatzeko. Horretarako, zenbait doikuntzarekin egin behar dira kalkuluak eta emaitzak ez dira aurrekontuaren kontabilitatearen emaitza berberak.

Zehazki, honela laburbiltzen ahal dira aurrekontuen egonkortasunari buruzko araudiak ezartzen dituen betebeharrak:

- **Aurrekontuaren egonkortasunaren muga fiskala:** Aurrekontuak [finantziario gaitasunarekin](#) prestatu, gauzatu eta likidatu behar dira (Europako Kontuen Sistemaren terminoetan); hau da, positiboa edo nulua izan behar du finantzakoak ez diren diru-sarreraren eta gastuen arteko saldoak (1. kapitulu ekonomikotik 7ra).
- **Gastu-arauaren muga fiskala:** [gastu konputagarriak](#), gastu ez finantzarioak osatzen duenak, zorraren interesak eta transferentzia finalistekin finantzatzen den gastua kenduta, urtero hazi behar du, ekonomiaren hazkunde joera gaitzen ez duen tasa batekin. Tasa hori gobernu zentralak finkatuko du, urte baterako baino gehiagotarako adierazitako Ministroen Kontseiluaren Erabakietan.
- **Finantza Jasangarritasunaren arau fiskala:** hiru mugatan artikulatzen da:
  - a. *Zor finantzarioaren muga:* udalaren zorraren bolumenari eusteko eta itzulketa bermatzeko, zor biziaren saldoa diru-sarrera arruntaren %110era mugatzen da; hortaz, muga hori gaitzen duten toki entitateek ez dute zorpetze-eragiketa berririk hitzartzerik izanen.
  - b. *Zor komertzialaren muga:* Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdiak ez du berankortasunari buruzko legeak ezartzen duen epea 30 egunetan gaitu behar (hura ere 30 egunekoa da). Ordaintzeko [batez besteko epea](#) kalkulatzeko, fakturen zenbatekoaren batez besteko haztatua erabiliko da (hornitzaileei zer egunetara ordaintzen zaien, horiexenak).
  - c. *Zuhertasun finantzarioaren muga:* finantza entitateekin zorra hitzartzeko, baldintzak ezin dira okerragoak izan Estatuak zor publikoa jaulkitzeko dituenak baino. Baldintza horiek aldian-aldian eguneratzen dira [Altxortegiaren Idazkaritza Nagusiaren ebazpenen bidez](#).
- **Aurrekontuen Egonkortasunak Nafarroako toki entitateetan dituen berezitasunak:** 2020an onetsitako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen aldaketan (22/2020 Foru Legea), aurrekontu egonkortasuna Nafarroako toki entitateetan aplikatzeko arauak ezarri ziren. Zehazki, 242 bis eta ter artikulatuak gehitu ziren, zeinetan gastu-araua aplikatzeko gastu konputagarrien kalkulua zehazten den eta diruzaintzako gerakina

erabiltzetik eratorritako arau fiskalak betetzen ez diren kasuetan jarraitu beharreko prozedura ezartzen den. Halaber, arau fiskalak eteten diren epealdian egin beharreko jarduketei buruzko zirkular bat ere argitaratu zen.

- **Informazioa emateko betebeharra:** [HAP/2015/2012 Ministro Aginduak](#) informazio betebehar batzuk ezartzen ditu prozedura telematikoen bidez aurrekontuaren eta kontabilitatearen kudeaketari dagokionez eta ordaintzeki eta hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari dagokionez. Betebehar horiek honela laburbil ditzakegu:

➤ **Urteroko informazioa:**

- Aurrekontuaren ildo orokorrak.
- Zerbitzuen kostu errealak.
- Onartutako edo luzatutako aurrekontuak.
- Langileei buruzko informazioa.
- Aurrekontuaren likidazioa /urteko kontuak.
- Likidazioaren aurrerapena.
- Zor iraungiak eta galdagarriak, egotzi gabeak.
- Arau fiskalak betetzearen inguruko aurreikuspena.
- Exekuzio egoera metatua.

➤ **Hiruhilekoko informazioa:**

- Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdiari buruzko informazioa.
- Diruzaintzaren plangintza eta zor bizia eguneratzea.
- 5.000 biztanletik gorako udalerrientzat:
  - Likidazioaren aurrerapena.
  - Zor iraungiak eta galdagarriak, egotzi gabeak.
  - Arau fiskalak betetzearen inguruko aurreikuspena.
  - Exekuzio egoera metatua.

## Aurrekontuaren eta kontabilitatearen kudeaketa

### ■ **Aurrekontua**

- Nafarroako toki entitateek urtero Aurrekontu Orokor Bakarra onetsi behar dute: adierazpen zifratu, bateratu eta sistematikoa, gehienez aitor ditzaketen betebeharrak eta dagokion ekitaldi ekonomikoan likidatu beharreko eskubideak biltzen dituena. Funtsezko tresna bat da, udal gobernuak bere esku duena zehazteko zer baliabide behar duen bete nahi dituen helburuak erdiesteko.
- Aurrekontu Orokor Bakar horren barnean beste aurrekontu hauek daude: udalarena, erakunde autonomoena eta merkataritza elkarteena, haien kapital osoa toki entitatearena bada.
- Halaber, toki entitateak sozietate baten partaidetzen gehiengo duenean, sozietatearen aurrekontua ere sartuko da Aurrekontu Orokor horretan.
- Aurrekontua hobeki kudeatzeko, toki entitateek aurrekontua betetzeko oinarri batzuk ezar ditzakete, diru-sarrerak eta gastuak betetzeko araudi gisa, erakundera eta hark eskaintzen dituen zerbitzuetara hobeto egokitze aldera.

### ■ **Aurrekontuaren egitura**

- Toki entitateen aurrekontuek diru-sarrerak eta gastuak sailkatu behar dituzte, Nafarroako Gobernuak onesten duen aurrekontu egiturarekin bat ([234/2015 Foru Dekretuaren](#) bidez arautua).
- Indarrean dagoen aurrekontu-egiturak aurrekontu-gastuen sailkapena jasotzen du, irizpide hirukoitz bati jarraikiz: programen arabera, ekonomikoa eta organikoa. Sailkapen ekonomikoa nahitaezkoa da, bai diru-sarrearen aurrekontuan, bai gastuenean. Gastuen aurrekontuak programen arabera izan behar du. Sailkapen organikoa hautazkoa da.
- Programen arabera sailkapenak helburuaren arabera ordenatzen ditu gastuak; sailkapen ekonomikoak, izaeraren arabera; eta organikoak, berriz, gastua gauzatzen duen unitatearen edo eragilearen arabera. Aurrekontu-partidan sailkapen funtzionaleko hiru digitu jartzen dira, sailkapen ekonomikoko beste hiru eta sailkapen organikoaren kasuan, aurreikusten diren guztiak. Banakapen hori bi digitukoa izan ohi da kontabilitate erraztua erabiltzen duten toki entitateen kasuan (oro har, 3.000 biztanletik beherakoak).

<b>AURREKONTUAREN EGITURA</b>		
<b>Sailkapena</b>	<b>Irizpidea</b>	<b>Galdera</b>
Organikoa	Zer organok agintzen duen diru-sarrera edo gastua	Nork?
Programak	Zertarako erabiltzen den diru-sarrera edo ordainketa	Zertarako?
Ekonomikoa	Diru-sarreraren edo ordainketaren izaera	Zertan?

- Kontabilizazioa aurrekontu-partidaren gainean egiten da, eta gastuen zerga-kontrola, udalak ezarritako lotura juridikoaren mailaren gainean; hau da, aurrekontu-desagregazio txikiagoa da kontrol-beharren arabera. Betiere, sailkapen ekonomikoak eta programen arabekoak gutxienez zenbaki bana eduki behar dute.

<b>Maila</b>	<b>Programen arabeko sailkapena</b>	<b>Sailkapen ekonomikoa</b>
1	1 Gastuen alorra	Kapitulua
2	2 Gastuaren politika	Artikulua
3	3 Programa taldea	Kontzeptua
4	4 Programa (irekia)	Azpikontzeptua
5	5 Azpiprograma (irekia)	

- **Aurrekontua prestatu eta onestea**
- Udalburuak prestatuko du aurrekontua, idazkariak eta kontu-hartzaileak lagunduta.
- Behin eginda, eta idazkariak eta kontu-hartzaileak txostena idatzi ondoren, udalburuak Osoko Bilkuran aurkeztuko du azaroaren 1aren aurretik, aurrekontua onesteko, zuzentzeko edo atzera botatzeko. Aurrekontuarekin batera, plantilla organikoa onartu behar da.
- Osoko Bilkurak hasiera batean onetsi ondoren, jendaurrean jarriko da idazkaritzan hamabost egun baliodunez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-oholean argitaratu eta gero, bizilagunek edo interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak egin ditzaten.
- Erreklamaziorik balego, Osoko Bilkurak horien gaineko berariazko erabakia hartu beharko luke, eta aurrekontua behin betiko onetsi. Hala egin ezean, jendaurrean jartzeko epea igaro denean, aurrekontua behin betiko onetsiko dela iritziko zaio, eta Osoko Bilkurak ez du erabaki berririk hartu beharko.

- Aurrekontuak NAOn kapituluka laburbildurik argitaratutakoan hartuko du indarra.
- Aurrekontua hasiera batean zein behin betiko onesteko, nahikoa da gehiengo soilak edukitzea, legeak ez baitu gehiengo kalifikaturik eskatzen.
- Toki entitatearen Osoko Bilkurak aurrekontua onesten ez badu, udalburuak aurrekontuari lotutako konfiantza-eskea egin dezake. Eskea atzera bota arren, aurrekontua onetsi dela iritziko zaio, bozkatu eta hilabeteko epean zentsuramoziorik aurkezten ez bada, edo aurkeztutako mozioak aurrera egiten ez badu.

#### ▪ ***Aurrekontua luzatzea***

- Ekitaldia hastean aurrekontua ez bada behin betiko onetsi, automatikoki aurreko ekitaldiko aurrekontua eta hori betearazteko oinarriak luzatuko dira. Luzapenak gastuen hasierako kredituei eragiten die, salbu eta amaitu behar direnei edo berriz jasoko ez diren diru-sarrerez finantzatutakoei. Nahiz automatikoki luzatzen den, udalburuak ebazpena eman behar du, luzatzen diren kredituak eta kentzen direnak zehazteko.
- Ebazpena ematerakoan, udalburuak luzatutako kredituak igo ditzake, baldin eta nahikoa diru-sarrera egonen dela aurreikusten bada eta gastu-konpromisoak irmoak badira.
- Oraindik tarterik baldin badago, Osoko Bilkurak, luzapenaren berri ematen den bilkuran, goranzko doikuntzak erabaki ditzake, falta den diru-sarreraren gerakina erabiliz. Erabakiak jarraitu behar dio aurrekontu arrunta onesteko prozedura berari, jendaurreko tramiteak barne. Goranzko doikuntza horrek ez du finantzaketako kontrapartidarik behar; nahikoa izango da luzatutako aurrekontuaren diru-sarreretan soberakina egotea.

Luzatutako aurrekontua egokitzeko hartutako erabaki arrazoitu guztiak Nafarroako Gobernu Tokiko Administrazioaren Departamentura bidali behar dira, erabakiak onetsi eta 15 eguneko epean.

- Behin betiko aurrekontua onetsitakoan, beharrezko doikuntzak egin beharko dira estaldura emateko, kasua bada, luzatutako aurrekontuaren indarraldian eginiko eragiketei.

#### ▪ ***Aurrekontua aldatzea***



- Aurrekontuan jasotako gastu kredituak zer helburutarako onartu ziren, horretarako baino ez dira erabiliko, eta izaera murriztailea izanen dute. Horrela, ezin izanen dira gastu horien zenbatekoa gainditzen duten gastu-konpromisoak edo -betebeharrak hartu, kredituak zabalgarriak ez badira.
- Dena dela, behar handiagoak edo berriak baleude, hasiera batean aurreikusitako gastuetarako kredituak alda litezke. Osoko Bilkurak hartu behar ditu aurrekontua aldatzeko erabakiak, edo, zenbait kasutan, aurrekontua exekutatzeko oinarrietan aipatzen den organoak. Bat dira aurrekontuko aldaketak onesteko prozedura eta hasiera batean onestekoa, eta berberak dira publikitatearen betebeharrak.
- Zazpi aldaketa-modalitate daude, eta aldaketa bat egitean, bakoitzari dagokion espedientea izapidetu behar da: kreditu bereziak, kreditu-osagarriak, kredituak handitzea, kreditu-transferentziak, diru-sarrera bidez kredituak sortzea, kreditu-soberakinak eranstea eta deuseztatzeen ondoriozko bajak.

### Aurrekontuko aldaketak (laburpena)

Aldaketa mota	Betekizunak	Finantzazio baliabideak	Zer organok onesten duen eta tramitazioa
<b>KREDITU BEREZIA</b>	GASTU ZEHATZA KREDITU GERORAEZINIK EZ	DIRUZAINZAKO GERAKINA AURREIKUSI GABEKO DIRU-SARRERAK DIRU-SARRERA HANDIAGOAK DEUSEZTATZEA-KREDITUEN BAJA KREDITU ERAGIKETAK (SALB)	OSOKO BILKURA ETA AURREKONTUAREN TRAMITAZIO BERA
<b>KREDITU GEHIKUNTZA</b>	GASTU ZEHATZA GERORAEZINA HANDIEZINA KREDITU ASKI EZ	KREDITU BEREZIETAN BEZALA	OSOKO BILKURA ETA AURREKONTUAREN TRAMITAZIO BERA
<b>KREDITUA HANDITZEA</b>	AURREIKUSPENA EXEKUZIO OINARRIETAN LOTUTAKO BALIABIDEAK GAUZATUAK	AITORTU DIREN LOTUTAKO DIRU-SARRERAK	EXEKUZIO OINARRIEN ARABERA
<b>KREDITUEN SORRERA</b>	LOTUTAKO FINANTZAZIOA DUEN GASTUA	LOTUTAKO DIRU- SARRERAK, KONFROMISO IRMOA DUTENAK ETA BILDUTAKOAK	OSOKO BILKURA, BAINA PUBLIZITATEAREN TRAMITERIK GABE
<b>KREDITUEN TRANSFERENTZIA</b>	KREDITU ASKI EZ	BESTE KREDITU BATZUK OUTXITZEA	EXEKUZIO OINARRIEN ARABERA
<b>KREDITUAK TXERTATZEA</b>	AURREKO ALDIAN GAUZATU GABEKO GASTUA	DIRUZAINZAKO GERAKINAK DIRU-SARRERA HANDIAGOAK LOTUTAKO DIRU-SARRERAK	EXEKUZIO OINARRIEN ARABERA

- ***Nafarroako toki entitateetan aurrekontu aldaketak izapidetzeak dituen berezitasunak:***

- 22/2020 Foru Legeak [aldaketa batzuk](#) ezarri zituen toki entitateetako aurrekontu aldaketen izapidetzeak malgutzeko. Honakoak dira laburki:
  - Gastu espedienteak aurretiaz izapidetzeko aukera. Horren arabera, toki entitateak zilegi izanen du gastu espedienteen tramitazioari hasiera ematea kasuko aurrekontu kreditua izan aurretik, dela ekitaldi berean, dela gastu horien egozpena egingen zaion aurrekontuari dagokionaren aurreko ekitaldian. Espedientearen hasierari nahitaez erantsi beharko zaio kontu-hartzaitzaren txosten bat, zeinean berariaz jasoko baita gastua garaiz aurrekoa dela eta lotuta dagoela kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintza etengarriari.
  - Toki Ogasunei buruzko Foru Legean aurreikusitako aparteko kredituak eta kreditu-osagarriak finantzatzeko iturriez gain, aurreikuspenen arabera ekitaldian jasoko diren diru-sarrerara berriekin ere finantzatzen ahalko dira aparteko kredituak eta kreditu-gehiagarriak, diru-sarrerara horiek gauzatu ez badira ere, baina etorkizunean bilduko direla jasota badago.
  - Aurreko ekitaldian erabili gabeko baliabideekin finantzatzen ahalko dira gastu berriei edo handiagoei erantzuteko behar diren aldaketak bai eta kreditu gehikuntzak ere, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onetsi arte iragaten den denbora epean sartzen ahalko direlarik. Nahitaezkoa izanen da kontu-hartzaitzak txostena egitea finantzaketa benetan erabilgarri dagoen egiaztatzeko.
  - Aurrekontu-aldaketak indarrean jartzeko epea aurreratu egiten da, aurrekontuaren exekuzio oinarrietan hala ezarrita dagoenean. Erabakia behin betikoa izango da hasierako erabakia hamabost egun naturalez jendaurrean jarri eta epe hori iragan ondoren erreklamaziorik edo alegaziorik egon ez denean, NAOn argitaratu beharrik gabe.
- **Aurrekontua gauzatzea**
  - Lau fasetan gauzatzen da gastuen aurrekontua: gastuaren baimena, gastuaren xedapena edo konpromisoa, aitortza eta betebeharraren likidazioa, eta ordaintzeko agindua. Fase horiek egintza administratibo bana dakarte, eta zer organok duen horretarako eskumena, hari dagokio egintza.
  - Osoko Bilkurari edo udalburuari dagozkio gastuen baimena eta xedapena, zenbatekoaren arabera (ikus Osoko Bilkurari eta alkateari dagozkion

eskumenen atala). Gainerako faseak udalburuari dagozkio, edo horretarako eskuordetza jaso duten organoei. Fase bat baino gehiago meta daiteke egintza administratibo bakar batean.

- Diru-sarrerak aitortzaren fasetik gauzatzen dira zuzenean, nahiz eta alde zuzeneko fase bat egon daitekeen, diru-sarreraren konpromisoarena, beharrezkoa denean kreditu aldaketak finantzatzeko, diru-sarrera finalistak egoteagatik.
- Gastuen ondorio ekonomikoak aurrekontu ekitaldi batetik aurrera luzatzen direnean (inbertsio gastuak, kasu), urte anitzetako gastuen gisara baimentzen ahal dira, eta gastuen proiektu bat bezala kudeatzen dira. Kasu horretan, gastu guztia hartzen du bere gain erabakiak. Horrela, baimenari eta xedapenari buruzko erabakiak hartzen ahal dira, hala nola kontratuen lizitazioa eta esleipena, nahiz ekitaldi bakoitzari dagokiona baino ez den gauzatuko.
- ***Aurrekontua likidatzea eta ixtea***
  - Aurrekontu-ekitaldia itxi ondoren, martxoaren 31 baino lehen udalburuak aurrekontuaren likidazioa onetsiko du, eta, bertan, honako hau jasoko da: ekitaldia itxi den egunean aurrekontuak duen betetze-egoera, aurrekontuaren emaitza, diruzaintzaren soberakinak, kreditu-soberakinak, eta ordaintzeke eta kobratzeke daudenak. Horren berri emanen zaio Osoko Bilkurari, horrek egingen duen lehenengo bileran, eta espedientearen kopia bidaliko zaio Tokiko Administrazioaren Departamentuari.
  - Aurrekontuaren likidazioan, magnitude nagusiak aurrekontu-emaitza eta diruzaintzaren gerakina dira. Lehenek ekitaldian gauzatutako diru-sarreraren eta gastuen arteko aldea adierazten du. Bigarrenak toki entitatearen finantza-egoera erakusten du; hau da, hurrengo ekitaldietan gastu berriak edo handiagoak finantzatzeko eskuragarri dituen funtsak. Gerakina negatiboa bada, udalak egoera hori zuzentzeko neurriak hartu beharko ditu. Neurri horiek sortutako defizitaren izaeraren arabera izanen dira, eta batik bat zehaztu beharko da inbertsioek finantzazio-falta duten edo gastu arrunt gehiegi dauden.
  - Gainera, aurrekontuaren likidazioan nahiz kontu orokorrean, aztertu behar da bete diren aurrekontuen egonkortasunari buruzko araudiak finkatzen dituen hiru mugak: Aurrekontuaren egonkortasuna, finantza jasangarritasuna eta gastuaren araua. Horietakoren bat bete ezean, araudiak ezartzen dituen

neurriak hartu beharko dira entitatea mugen barnean kokatzeko bi ekitalditan: orduko horretan eta hurrengoan.

- Orobat, aurrekontuen egonkortasunari buruzko araudiak ezarritako mugek behartzen dute aurreko ekitaldiko aurrekontuaren superabita erabiltzera, oro har, zor bizia murrizteko, baina entitateak egoera finantzario osasuntsua baldin badu, inbertsio finantzarioki jasagarriak finantzatzeko erabil daiteke. Horren definizioa Toki Ogasunei buruzko Legean dago jasota. Eragiketa horiek diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako aurrekontuko aldaketen bidez egiten dira.

- **Kontu orokorra**

- Aurrekontu Orokorrean sartutako erakunde guztien aurrekontu-likidazioekin, apirilaren 30a baino lehen udalburuak kontu orokorrak eginen ditu, eta ekainaren 1a baino lehen, Kontuen Batzorde Bereziari igorriko dizkio, horren gaineko txostena idatz dezan.
- Batzordeak txostena idatzi ondoren, kontu orokorrak eta horien gaineko txostena jendaurrean aurkeztuko dira hamabost egun baliodunez, eta epe horretan, interesdunek erreklamazioak egiten ahal izanen dituzte. Kontuen Batzordeak erreklamazio horiek aztertuko ditu, eta txosten berria idatziko.
- Arestian aipatutako txostenekin, espedientea Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio, irailaren 1a baino lehen onetsi dezan. Behin onetsita, hamabost eguneko epean Toki Administrazioako Departamentuari igorri behar zaio. Bide telematikoak erabiliz, batera igor dakieke Nafarroako Gobernuari nahiz aurrekontuen egonkortasunaren mugak betetzen direla egiaztatzeko eskumena duen ministerioari.

- **Kontu orokorraren edukia**

- **Espedientea:**

- Entitate bakoitzaren aurrekontua likidatzeko espedientea.
- Entitate bakoitzaren egoera ekonomikoari eta patrimonialari buruzko espedientea.
  - Egoeraren balantzea.
  - Galeren eta irabazien kontua.
- Entitate bakoitzaren Kontuaren eranskinak.
  - Diruzaintzaren egoera.
  - Etorkizuneko ekitaldien kargurako gastuen eta diru-sarreraren konpromisoen egoera.
  - Kostuen memoria.

- Entitateak zer merkataritza sozietateren kapitala duen guztiz bere esku, horien urteko kontuak.

➤ **Eranskinak:**

- Kontu-hartzaitzaren txostena.
- Zorraren egoera.
- Udalburuaren memoria.
- Entitate guztien kontu kontsolidatua.
- Entitateak zer merkataritza sozietatetan duen %50tik gorako partaidetza, horien urteko kontua.

■ **Kontabilitatea**

- Toki entitatea eta horren erakunde autonomoak kontabilitate publikoko araubidean sartuta daude. Era berean, araubide horren barruan daude merkataritza-elkartek, toki entitateak partaidetzen osoa edo gehiengoa duenean haietan, ezertan galarazi gabe enpresa pribatuentzat indarrean dauden zuzenbide- eta merkataritza-araudiari eta Kontabilitate Plan Orokorrari ere men egin behar izatea. Kontabilitate publikoko araubidearen barruan daudenek kontuak aurkeztu behar dituzte Kontuen Ganberan.
- Nafarroako Toki Ogasunek beren araudia dute kontabilitaterako; hain zuzen ere, [272/1998](#) eta [273/1998](#) foru dekretuetan dago arauturik, sistema orokorra edo sinplifikatua den.
- Sistema orokorra Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra da, partida bikoitzekoa. Izan ere, 3.000 biztanleko edo hortik gorako toki entitate guztiei eta beren erakunde autonomoei aplikatzen zaie, baita udalerriez bestelako toki entitateei ere, baldin eta 3.000 eta 5.000 biztanle artean dituzten udalen batez besteko gastu arruntak gainditzen badituzte bi ekitaldi jarraian.
- Kontabilitate erraztuko sistema, berriz, sistema orokorraren aplikazio-eremutik at dauden entitateei aplikatzen zaie, sistema orokorra aplikatzea borondatez eskatzen ez duten bitartean.

## TRIBUTUEN KUDEAKETA

- ***Tributuak eta ordainarazpenak ezarri eta arautzea***
- Ordenamendu juridikoak zergapetzeko ahalmena ematen die toki entitateei, tributuak ordainarazteko beren eskumenen eta lurraldearen esparruan.
- Tributuak ezartzeko ahalmenari esker, toki entitateek tributu elementuak zehazten ahal dituzte ordenantza fiskalen bidez, betiere, legeak ezarritako mugen barnean.
- Ordenantza fiskaletan gauzatzen da toki entitateek toki tributuen arloan duten erregelamenduak egiteko ahalmena. Toki Administrazioari buruzko Foru Legean dago zehaztuta ordenantza fiskalak onetsi eta prestatzeko prozedura, eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 13. artikuluan, berriz, zehazten da zein den haien gutxieneko edukia.
- Honela sailkatzen ahal da toki entitateen baliabideak ezarri eta antolatzeko ahalmenen aplikazioa:
  - **Tributu izaerako eta ordainarazpen nahitaezko baliabideak.** Haiekin ez da beharrezkoa ezartzeko erabakirik hartzea edo ordenantza fiskalik egitea, nahiz eta erabaki hauek hartu behar izan:
    - Lurraren gaineko zergan, eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergan, eta gainbaliokan eta etxebizitza hutsen gainekoan, zergatasak horiek gobernatzen dituzten arauak xedatutako mugen barruan ezartzen dira.
    - Jarduera ekonomikoen gaineko zergan indize-eskala bat ezartzen da, jarduera bakoitzaren kuotak aplikatzeko; eta gainbalioan, zergaren oinarria zehazteko.
  - **Tributu izaerako eta ordainarazpen aukerako baliabideak.** Haiekin beharrezkoa izanen da ordenantza fiskala ezarri eta onesteko erabakia, tarifak finkatzen dituenak. Horrek tasak, kontribuzio bereziak eta luxuzko gastuen zerga ukitzen ditu.
  - **Tributu izaerarik ez duten baliabideak,** berriz, honako hau behar dute:

- Ordenantza eta erabakia, tarifak ezartzekoak, herri-lurren aprobetxamenduetarako, langile eta garraio prestazioetarako eta tributu izaera ez duten ondare prestazioetarako.
- Ezarpena adostea eta tarifak prezio publikoetarako eta urbanizazio kuotetarako, birpartzelazio proiektua onesten denean.

### ▪ **Likidazioa**

- Likidazioa ordainarazpenaren jarduera nagusia da, eta horren bidez, zerga-zorra zehazten eta zorduna identifikatzen da. Oinarri juridiko horri esker, bilketa gauzaten da eta zerga lortzeko bitarteko hertsatzaileak erabiltzea funtsatzen ditu.
- Tokiko Ogasunei buruzko Foru Legearen 86. artikulua likidazioak hiru motatan sailkatzen ditu, bilketaren arabera: jakinaraziak, jakinarazpenik gabekak eta norberak likidatuak.
  - **Norberak likidatutako zerga-zorrak**, subjektuak berak aurkezten ditu, likidazio-aitorpenen bidez.
  - **Jakinarazpenik gabeko likidazioak**, berriz, jada ezagunak diren zergadunen erroldetatik ateratzen dira, eta ez da jakinarazpen indibidualik egin behar. Izan ere, likidazio horiek aldizka kobratzen diren zergei dagozkie, eta dagokion izendegian, erroldan edo matrikulan alta ematearen likidazioa jakinarazi behar da soilik. Zerga horien likidazioa modu kolektiboan jakinaraziko da, betiere aldaketa orokorrik egon ez bada.
  - Jakinarazpen kolektiboa egiteko, udaleko iragarki-oholean lege-abisuak argitaratuko dira, eta bertan adieraziko dira izandako aldaketa orokorrak, errekurtsioak, epeak eta organoak, baita zorrak ordaintzeko epea ere.
- **Jakinarazi beharreko likidazioei** dagokienez, bi kasu egon daitezke:
  - Aldizkakoak ez diren zergen likidazioa.
  - Aldizkako zergen kasuan, dagokion izendegian, erroldan edo matrikulan alta edo baja ematearen edo aldaketak egitearen likidazioa.

### ▪ **Diru-bilketa**



- Bilketaren kudeaketa honetan datza: administrazio-funtzioa betetzea toki entitateen ogasunetako hartzekoan dauden kredituak eta eskubideak burutze aldera. Tokiko Ogasunei buruzko Foru Legearen 84.1 artikulua araberan, bi epealdi ditu: borondatezkoa eta exekutiboa.

- **Borondatezko aldia**

Borondatezko aldia zorraren likidazioa behar bezala jakinarazten denean hasten da (jakinarazpen hori indibiduala edo kolektiboa izan daiteke), edo aitorpen-likidazioa aurkeztearekin, norberak likidatzen dituen zergen kasuan. Subjektu pasiboa toki-ogasunarekiko zordun gisa ageri da soilik likidazioaren jakinarazpena egiten zaion unetik aurrera; hortaz, jakinarazpenik egiten ez bada, ez da eraginkorra.

**Ordainketa egiteko epea**, ordainarazpen-motaren arabera da:

- Indibidualki jakinarazten diren likidazioen kasuan, jakinarazpena egin eta 30 egun balioduneko epean egin beharko da.
- Aldizka kobratzen diren zergen likidazioari dagokionez, ordainketa 30 egun balioduneko epean egin beharko da, ordaindu behar diren hiruhileko naturalaren lehen egunetik zenbatzen hasita.
- Norberak kitatzen dituen zergen kasuan, ordainketa aitorpena aurkezterakoan egin behar da. Aitorpena dagokion ordenantzetan ezarritako epean aurkeztu beharko da, eta halakorik ezean, 30 egun balioduneko epean, zergapeko egitatea gauzatzen denetik zenbatzen hasita.

- **Aldi exekutiboa.**

[Zergen gaineko Foru Arau Orokorrak](#) eta [Nafarroako Foru Erkidegoaren Diru-bilketaren Araudiak](#) gobernatzen du aldi exekutiboko bilketa. Aldi exekutiboa automatikoki hasiko da, administrazioak ez du jarduketarik egin behar. Aski izanen da borondatezko aldi ordaintzeko epea bukatzearekin.

Aldi exekutiboa hasita, administrazioak **premiamendu-prozeduraren** bidez bilduko ditu zorrak. Zordunari jakinarazitako premiamendu-probidentzia bidez hasten da premiamendu-prozedura; horretan, ordainketa egiteko eskatzen zaio. Premiamendu-probidentziak epai judizial batek adina indar exekutibo dauka, ordaintzera derrigortuta

dagoenaren ondasunen eta eskubideen aurka egiteko, eta diruzaintzak horretarako agindua emateko eskumena dauka.

Aldi exekutiboa hasteak berandutze-interesak eta epealdi horri dagozkion errekarquak sortzea dakar.

- Aldi exekutiboko errekarquak: errekarqu exekutiboa %5ekoa izanen da, eta premiamendu-probidentzia jakinarazi aitzin aldi exekutiboan ordaindutako zorraren gainean aplikatuko da. Premiamendu-errekarqu murriztua %10ekoa izanen da, eta, premiamendu-prozedura zer zorretarako jarri den martxan, horiek ordaintzeko erregelamenduz ezarritako epea bukatu aurretik ordaindutako zorraren gainean aplikatuko da. Bi kasuetan ez dira berandutze interesak kobratuko. Premiamendu errekarqu arrunta %20koa izanen da, eta aurreko ataletan aipatutako inguruabarrak suertatzen ez direnean aplikatuko da.
- Berandutze interesak: zergari buruzko legeriak ezarritako interes-tasari aplikatuko zaizkio berandutze-interesak, oro har urtetik urtera eguneratuak, eta borondatezko aldian ordaindu ez den tronkoaren gainean.